El 10 marzo de 2010 y organizado por el Ayuntamiento de Zegama y el Museo de la Alfarería Vasca en Ollerias tomo parte en un proyecto denominado Ollerias Maratoia en donde durante 10 horas varios alfareros tornearon varios cientos de KATILUAK (cuencos de barro). En ese mismo día también hicimos una visita al restaurado molino de esmaltes de la casa Intxausti, de Zegama, que años atrás había estudiado Enrike Ibabe.

Enrike, fue un etnógrafo de campo, amante de la montaña y acompañado por su mujer la hernaniarra Juana Lujanbio, recorrió las sierras y montes de toda Euskal Herria, Pirineo, y montañas de Asturias, León y Cantabria. Como dibujante extraordinario, prospector minucioso e investigador constante realizó una importante labor de catalogación sistemática de construcciones primitivas y de útiles empleados por el mundo pastoril.

Solo como muestra enumerare algunos de sus interesantes trabajos etnográficos:

Bolu jolasa katxete erara en la Revista Kobie de 1985; Construcciones pastoriles en el macizo de Gorbea en Kobie 1999-2000; Arquitectura sin arquitectos, en el Macizo oriental de los Picos o Andara de Europa, en Kobie 2001-2003; Cabañas y abrigo pastoriles en las Sierras de Ordunte y Mesada, en Kobie 2004-2005; Nataderos en cuatro ríos pasiegos, zona alta de la Vega de Pas y el Concejo de Somiedo, en Kobie 2006-2007; Construcciones pastoriles de "falsa bóveda" en Estaniturri-Andía, Revista Kobie 2009; Los llares de madera en cabañas pasiegas, en Kobie 2010; "Corros" de falsa bóveda en la Braña de la Mesa-Somiedo, en Kobie 2012; Copnstrucciones de falsa bóveda,orros en la Braña de Sousas del pueblo de Urria-Somiedo, Kobie 2013.

Por otra parte también publicó: Unas notas sobre las castañas en la alimentación y las ericeras. Y otro artículo muy ilustrado sobre Raquetas de Euskal Herria para andar sobre la nieve Revista Kobie 1997-1998

También publico por la BBK un voluminoso libro profusamente ilustrado y documentado que es Gure Gorbeia, monografía antológica de ese emblemático macizo calcáreo entre Araba y Bizkaia.

No puedo terminar esta necrológica de este buen amigo sin hacer referencia a otros importantes amigos en el mundo de la antropología cultural que en este aciago año 2015, lamentablemente nos han dejado.

El 8 de enero fallece en Tolosa a los 89 años el Dr. en Antropología, etnógrafo y prolífico escritor Juan Garmendia Larrañaga.

El 12 de octubre fallece en Bilbao Enrike Ibabe Ortiz a los 80 años

El 29 de octubre fallece a los 56 años el director de documentales sobre pueblos y naturaleza José María Elosegui Ichaso.

El 21 de noviembre fallece en Legazpi a los 100 años Dominika Arrizabalaga que fue pastora, amiga e informante mía de la zona de Oltza-Aizkorri durante más de cincuenta años.

El 31 de noviembre fallece en Málaga con 87 años el escritor y director de documentales etnográficos tan importantes como Navarra cuatro estaciones patrocinado por la CAN (1970) y Gipuzkoa (1976-1979) patrocinado por la entonces Caja de Ahorros Municipal de San Sebastián con motivo de su centenario. En este extenso documental me cabe el honor de haber participado como asesor en el capítulo de pastoreo.

El 15 de diciembre fallece con 85 años en Donostia, mi amigo Francisco Fernández García de Diego, que para mí fue un referente cuando en aquel ya lejano 1958, en donde ya entonces me interesaba por la espeleología y la prehistoria y me hice socio del que para entonces se llamaba Grupo de Ciencias Naturales Aranzadi con sede en el Museo de San Telmo.

A todos ellos mi admiración y respeto por todo lo que he aprendido con ellos y un fortísimo abrazo a todos sus familiares que saben dónde me pueden encontrar.
Agur bero bat.

FERMIN LEIZAOLA

BOTANIKA



Eskualde mailako flora exotikoaren erazketan, landare espezie mehatxatuen kontserbazioan, udalerrri mailako habitat naturalen kudeaketa lanetan, ARAN datu basea eta herbarioaren eguneratze eta mantentze lanetan eta dibulgazio lanetan jardun gara aurten, batez ere hainbat entitate eta botanikariekin elkarlanean. Aurten antolatutako Landareen Kontserbazio Biologiako VII. Biltzarra nabarmendu nahi dugu, bertan 130 biologo inguru parte hartu zutelarik.

Se ha trabajado sobre todo, en la recuperación de la flora amenazada, en la erradicación a nivel comarcal de la flora exótica invasora, en el mantenimiento y actualización de la base de datos y herbario ARAN, en proyectos de gestión de hábitats naturales de municipios y en acciones de divulgación, en ocasiones colaborando con otros botánicos y entidades. Destacamos también el VII Congreso SEBICOP que organizó el departamento, en el que participaron unos 130 especialistas biólogos.



ENTOMOLOGIA

2015ean bilduma entomologikoan mantentze lanak burutu dira, espezie berriak erregistratu eta dibulgazio lanak ere bultzatu dira. Gorpuzkietan bereziki egindako ikerketak euliek materia organikoaren deskonposizioan duten paper garrantzitsua azpimarratzea lortu du. Proiektu berriak abian dira, saporxilikoak zuhaitz zaharrekin duten harremanean sakontzen duen ikerketa ildo berririkiz hain zuzen ere.

En 2015 se ha procedido al necesario mantenimiento y extracción de datos de las colecciones, divulgación a público general y especializado y aporte de nuevos registros de especies. El proyecto de sucesión de fauna de cadáveres llega a su fin, poniendo de manifiesto la importancia de las moscas en la descomposición de la materia orgánica. Y nacen proyectos nuevos, retomándose la línea de investigación de relaciones entre saproxílicos y árboles viejos.

HERPETOLOGIA



Herpetologia saileko ikerketa ildoa izaera ekologian eta eboluzio ekologian datza, bereziki herpetoen habitata antropizatzearen efektuak eta haiek ingurumenaren aldaketa bortitzen aurrean moldatzeko duten gaitasuna aztertzen delarik. 2015ean, 2016ean defendatuko den doktoretza tesia eta gradu amaierako lan bat zuzentzen ari da Herpetologia saila. Honez gain, hiru ikasle izan ditugu praktikak egiten eta mehatxatutako ohiko espezieen jarraipen egiten segi dugu. Gainera, lurraldearen babes sustatzeko bi proiektu eta habitata kudeatzen hainbat ekimen burutu ditugu. Azkenik, Zaragozako Unibertsitatearen eskutik doktore bilakatu da gure saileko kide

La actividad investigadora del departamento, sigue centrada en los efectos que la antropización del hábitat tiene sobre los herpetos y sus mecanismos de adaptación a éstos rápidos e intensos cambios ambientales. Todo ello, ha formado parte de una tesis doctoral y un proyecto de fin de carrera. Además, tres alumnos han realizado prácticas con nosotros y hemos mantenido los seguimientos de poblaciones amenazadas, dos proyectos de custodia del territorio y varias actuaciones de gestión del hábitat. Por último, otro miembro del departamento ha adquirido el título de doctor en la Universidad de Zaragoza.

ZIENTZIAK

MIKOLOGIA



Mikologia sailak ikerketan eta aleen bilketan jarraitu du urte osoan zehar. Bildutako ale horiek dira ikerketa lanen oinarri, eta Mikologia sailak horien arabera ere hedapen jarduerak bultzatzen ditu. Lan-taldea ikertzaile eta boluntarioek osatzen dute, mikologiarekiko zaletasunak bultzatuta eta betiere proiektu konkretuak garatuz. Lan zientifikoarekin batera, sortzen den ezagutza partekatu eta hedatzeko ekintzak prestatzen dira, aniztasun mikologikoa jakitera eman eta babesteko helburuarekin.

El Departamento trabaja continuamente investigando y recogiendo ejemplares del campo durante todo el año. Son todos los ejemplares recogidos los que marcan las líneas de investigación y diferentes actividades en las que se basan los estudios del Departamento de Micología. En la actualidad se constituye como un grupo de investigación en el que se acogen diversos especialistas y aficionados a la micología que realizan sus consultas y trabajos conforme a planes y proyectos específicos. Asimismo, se desarrollan actividades generales, así como de investigación, al tiempo que se realiza una labor divulgativa para difundir el conocimiento y la conservación de la diversidad micológica.

ORNITOLOGIA



Aurten, sailaren mugarri garrantzitsuena www.ornitho.eus plataformaren eraketa izan da. Interneteko portal honek EAeko faunaren behaketa erregistratzeko aukera ematen du, datu horiek modu errazagoan hedatu eta kontsulta daitezten. Erantzuntze Bulegoak gainera, EURING Europa mailako erantzuntzaile zientifikoaren Biltzar Nagusia antolatu zuen 2015ean. Ikerketa zientifikoaren esparruan, Ornitologia sailak doktoretza tesi eta gradu zein master amaierako lanen koordinazioa darama, eta bestelako ikerketa proiektuetan ere murgilduta dabil.

El hito más destacado del Departamento en 2015 ha sido la creación de la plataforma www.ornitho.eus. Este portal de Internet surge con el fin de dotar a Euskadi de una herramienta que facilite el registro de citas de fauna, así como su difusión y consulta. Otro hito importante, de la mano de nuestra Oficina de Anillamiento, ha sido la organización de la Asamblea General de EURING. En cuanto a la producción científica, el Departamento continúa su labor a través de distintos proyectos y el desarrollo de tanto tesis doctorales como trabajos de fin de grado y tesis de máster.

NATURALES



BOTANIKA



Zuzendaria / Directora: YOANA GARCIA [ygarcia@aranzadi.eus]

Botanika Sailak Euskal Herriko flora (landare baskular) eta landarediari buruzko lanak aurrera eramaten ditu. Hona hemen 2015ean gauzatutako proiektuen nondik norakoak.

El Departamento de Botánica realiza trabajos sobre la flora (plantas vasculares) y vegetación de Euskal Herria. A continuación se presentan las líneas generales de los proyectos llevados a cabo durante el año 2015.

IKERKETA PROIEKTUAK / PROYECTOS DE INVESTIGACIÓN

ARAN DATU BASEA ETA HERBARIOA. MANTENTZE-LAN ETA EGUNERAKETA

Finantzabidea: IHOBE entitate publikoa (Eusko Jaurlaritzza)

Parte-hartzaileak: Lorena Uriarte, Ibon Tamayo, Anaïs Mitxelena, Joseba Garmendia, Yoana Garcia eta Mikel Etxeberria

ARAN herbarioa 1980. urtean sortu zen Euskal Herriko landaredia ezagutzeko helburuarekin. Bertan landare baskularrak gordetzen dira eta egun 80.000 plegu inguru daude. Gehienak Euskal Herrikoak dira, baina badira herbarioen arteko trukeen ondorioz Iberiar Penintsula, Europa eta munduko beste hainbat leku eta kontinenteetako landareak ere. Herbarioaren sorrerarekin batera ARAN datu basea sortu zen, non herbarioan gordeta dauden Euskal Herriko eta mugakideak diren lurraldeetako pleguen datuak gordetzeaz gain, datu bibliografikoak eta espezieen zitak biltzen diren.

Egun, ARAN datu basean 2.000 erreferentzi bibliografiko inguru eta 224.831 zita daude material bibliografikotik eta herbariotik aterata.

2012an ARAN liburutegi digitalari sorrera eman zitzaion eta urtero ARAN datu basean zitatzen diren dokumentuak gehitzen dira bertara PDF

formatuan. Egun 1.958 dokumentu daude, hau da, datu basean zitatzen diren dokumentu totalaren % 91,2a.

Helburu nagusia landarediaren inguruan sortutako informazioa gorde eta sarbidea erraztea da, datuak eskuragarri izan eta hainbat ekintza burutzeko. Datu eta informazio kopurua hain altua izanik ezinbestekoa da ahalik eta akats gutxien izatea eta datuak bilaketa erraztuko duen moduan gordetzea. Horregatik Eusko Jaurlaritzaren Finantzabideari esker urtero datuen arazketa lanak egiten dira, bilaketa erraztuko duten formatuak lehenetsi eta bere eskura jartzen dira datuak.

2015ean aurreko urteetako lanei jarraipena emanez EAE eta lurralde mugakideei erreferentzia egiten dieten argitalpenetatik zitak bilatu eta datu basean txertatu dira. Argitalpen ugari kontsultatu dira eta 52 argitalpenetako zitak gehitu dira datu baseara, 1.360 zita inguru denera.

Datuen arazketari dagokionez, datu geografiko okerrak detektatu eta zuzendu dira Udalerriei eta UTM koordenatuei dagokienez. Udalerrien kasuan 1.254 erregistroren izenak zuzendu dira. UTM koordenatuei dagokienez, 2.995 koordenatu zuzendu dira. Bestalde, 2012tik, urtero herbarioko 500 taxoiren pleguak digitalizatzen dira, gerora begira pleguen argazkiak bai Aranzadiko eta baita Eusko Jaurlaritzako web orrietan kontsultatu ahal izateko. Guztira 1.500 pleguren argazkiak ditugu digitalizatuta, Herbarioko Argazkien Bil-duma osatzen dutenak.

Lan hauek Aranzadi Zientzia Elkarte eta Eusko Jaurlaritzako Ingurumen eta Politika Sailaren artean sinatutako hitzarmenaren baitan gauzatzen ari dira. Hitzarmen hau 2013. urtean sinatu zen Aranzadik Euskadiko Naturaren Behatokiaren Esparruan lanak egin zitzaion eta hiru urteko iraupena du.



Digitalizatutako plegu batzuen irudiak.

LANDAREEN EUSKAL GERMOPLASMA BANKUA: EAEKO LANDARE ESPEZIE MEHATXATUEN ETA PENINTSULA IPAR-EKIALDEKO FLORAREN KONTSERBAZIOA EX SITU. 2015KO LAGINKETAK

Finantzabidea: Eusko Jaurlaritz, Gipuzkoako, Bizkaiako eta Arabako Diputazioak eta Millenium Seed Bank – Royal Kew Gardens.

Parte hartzaileak: Maialen Arrieta Aseginolaza, Yoana García Mendizabal, Anaïs Mitxelena Larrañaga, Lorena Uriarte Arandia, Joseba Garmendia Altuna, Leire Oreja Gutiérrez


EAE eta EAeko mugakide diren lurraldeetako flora mehatxatua-
ren *ex situ* kontserbazioarekin eta Batasunaren interesezko habitaten lehengoratzeko lanekin jarraitu da. Germoplasma (hazi, espora, adar, errizoma...) bilketaz gain, hoziketaprotokoloen garapenak eta landare hazkuntzak, geroz eta leku handiagoa hartzen doaz, ezin baita ahaztu *ex situ* kontserbazioa *in situ* kontserbatzeko lanabesa dela.

2015. urtean EAEn eta EAetik kanpo bildu da germoplasma bankurako materiala. 92 espezieren 127 hazi eta espora akzesio bildu dira eta material begetatiboari dagokionez 11 akzesio. EAeri dagokionez, 72 espezieren (tartean 28 espezie katalogatuen) 98 hazi akzesio bildu dira eta mehatxatuak dauden 6 espezieen material begetatiboa bildu da.


2006tik egundaino bildutako hazi nahiz esporen akzesioak batuz gero, 2015an Germoplasma Bankuan 1.195 akzesiotarako iritsi gara. Landare mehatxatuen artean akzesio gehien dituztenak "Galzorian" kategoriatikoa espezieak dira (473), eta ondoren datoz, kopuruari dagokionez, "Kaltebera" (157), "Bakanak" (19)



Arnica montana (Kaltebera) espeziearen haziak bildu dira Gipuzkoan 2015 urtean.



2015. urtean bildutako akzesioak



Urtetik urtera bildutako hazi akzesio kopuruaren metaketa.

eta Interes berezikoak (1). EAeko ez-babestutako espezieen akzesioak totalaren % 16 dira eta EAerako desagertzat ematen zen baina 2015 Sestako Natur Zientzien Elkarte berriz aurkitu duen *Glaucium flavum* espezieare akzesioa ere jaso da. EAetik kanpo bildutako akzesioen portzentajea % 23,1 da.

Aurten, 2014. urtean hasitako 21 espezieen hozitze protokoloak burutu dira Fraisoro Nekazal Labo- rategian eta horietatik 12 landare



Hazitik hasita lortu diren *Cicerbita plumieri* (Galzorian) espeziearen landareak.



Hazitik hasita lortu diren *Carex strigosa* (Kaltebera) espeziearen landareak.



Arizmendin mantentzen diren *Rhynchospora fusca* aleetako batzuk.



Hibiscus palustris espeziearen aleak albeolotatik atera berriak.



Zalamako zohikaztegiko lehengorazte lanetan *Eriophorum vaginatum* espeziearen landaketak egin dira.



Erica ciliaris espeziearen hazkuntza.

mehatxatuei dagozkie (5 "Galzorian" eta 7 "Kaltebera"), hala nola, *Cardamine heptaphylla*, *Cicerbita plumieri*, *Galium arenarium*, *Medicago marina*...

Arizmendiko mintegian duntako hainbat landareren hazkuntza protokoloak egin dira, substrato mota ezberdin eta bolumen ezberdineko albeolotan espezieek duten hozitze arrakasta eta biziraupen arrakasta neurtzeko asmoz.

Landare mehatxatuei dagokionez, *Culcita macrocarpa*, *Daphne cneorum*, *Galium arenarium*, *Matricaria maritima*, *Thelypteris palustris*, *Rhynchospora fusca*... espezieen materiala biltzeaz gain, populazioak indartzeko lanak egin dira, hala nola, Aizkorri-Aratz kontserbazio Bereziko Eremuan dauden *Carex hostiana* eta *Prunus padus* aleen landaketak, *Hibiscus palustris* espeziearen landaketak egin dira nukleo berriak sortzeko, *Barlia robertiana* eta *Epipactis palustris* orkideoen hazien kultiboarekin jarraitzen da...

Espezie egituratzaileei dagokionez, hainbat habitatetako landareekin lan egiten jarraitu da, hala nola, duntako espezieekin, Gipuzkoako hareatzetan egiten ari diren lanak indartzeko; *Cladium mariscus* espeziarekin, bizi den hezegunearen kontserbazio egoera hobetzeko; Zalamako zohikaztegiaren lehen-

goratze lanetarako *Eriophorum vaginatum* espezie mehatxatuen biderkaketa eginez mintegian; *Erica* generoko txilarren hazkuntza kostako txilardiak sendotzeko...

Gainera, Eusko Jaurlaritz eta Aldundien finantziaketaz gain, bankuak bere helburuak lortzeko finantziabide berriak lortzen ari da eta honek bere funtzionamendua mantentzeko eta sendotzeko ez ezik, Bankuak duen berariazko garrantzia berresteko balio izan du. Era honetan, Bankua WESTPYR eta LIFE+ ARCOS proiektuen ardatz bihurtu da, Mendebaldeko Pirinioetako flora kontserbatzeko eta Kantauriar kostaldeko hareatza eta dunak kontserbatzeko proiektuak, hurrenez hurren. Maila apalago batean Bankua LIFE+ PROIZKI, LIFE+ ORDUNTE JASANGARRIA eta LIFE+ TREMEDAL proiektuetan ere parte hartzen ari da, hezeguneetako landare mehatxatu eta egituratzaileen ekoizpenean, hazi bilketatik hasita, hozitze protokoloak garatzen eta landareak hazten, azkenik landare populazioak indartzeko habitat zaugarriak leheneratzeko.

Dibulgazio lanei dagokionez, Iturraran Lorategian dagoen espezie mehatxatuentzako eremuan bisita gidatuak egin dira bigarren urtez. Bisita horiek Iturraran Lorategi

Botanikoan antolatzen den Landare Berezien Azokan gauzatu dira, eta espezie mehatxatuen eramaren inguruko azalpenak eman dira. Gainera, bankuak egiten dituen hainbat jardueraren berri eman da Gasteizen egindako Landareen Kontserbazio Biologiaren VII. Biltzarrean, ahozko nahiz idatzizko komunikazioen bidez.

Oraindik ere GBIF erakundeko web-orrian eskuragarri ez dagoen arren, datu basearen hazi bilketaren bilduma AIMJBren Integrated Publishing Toolkit (IPT)-en bidez kontsulta daiteke egun OpenREDBAG proiektuan egindako lanari esker. Era honetara, bankuaren bildumetariko bat mundu zientifikora zabaldu da.

Bankuko herbarioak (Aranzadi Zientzia Elkarteko ARAN herbarioren barnean kokatua), germoplasma bildutako espezieen 200 plegutik gora ditu dagoeneko. Gainera, Bankuaren argazki-bilduma handituz joan da mendiko, Fraisoro laborategiko, Arizmendi mintegiko eta Iturraran Lorategi Botanikoko argazkiekin.

Aurtengo laginketetan bereziki eskertu behar da Nafarroako hainbat basozainen, eta Sestaoko Natur Zientzien Elkarteko eta Euskal Herriko Unibertsitateko kideen laguntza.

GIPUZKOAKO LANDARE MEHATXATUEN JARRAIPIEN LANAK

Finantzabidea: Gipuzkoako Foru Aldundia.

Parte-hartzaileak: Joseba Garmendia, Leire Oreja, Maialen Arrieta, Mari Azpiroz, Anaïs Mitxelena, Yoana Garcia, Lorena Uriarte.

Aranzadi Zientzia Elkarrekin Gipuzkoa Foru Aldundiarekin duen hitzarmenaren barruan Gipuzkoan kontserbazio egoera larrian dauden hainbat landare espezieren jarraipena egin da. EAEko Espezie Mehatxatuen Katalogoan "Galzorian" eta "Kaltebera" kategorian dauden espezieak dira.

Azken urteetako lan ildoarekin jarraituz, Gipuzkoan kontserbazio egoera larrian dauden 6 landare espezieren jarraipena egin da. EAEko

Espezie Mehatxatuen Katalogoan Galzorian eta Kaltebera kategorian dauden espezieak dira guztiak: *Angelica razulii*, *Drosera intermedia*, *Hugueninia tanacetifolia* subsp. *suffruticosa*, *Spiranthes aestivalis*, *Vandenboschia speciosa* eta *Woodwardia radicans*.

Azterketa lan honetan bere kontserbazio egoeran eragina duten faktoreak neurtu dira, besteak beste, populazioen tamaina, banaketa, habitat mota eta arrisku faktoreak.

Gainera, kartografia berri eta birsartzapenen jarraipena egin da. Honetaz gain, espezie batzuetan, bilaketa berriak ere egin dira, espezie hauentzat egokiak izan daitezkeen gune potentzialetan.

Espezie bakoitzarentzat egindako jarraipen-lana ezberdina izan da. Bakoitzaren arazoaren arabera ezagutza ezberdin batean sakontzea erabaki da. Bestalde, espezie batzuen laginketan beste batzuetan baina denbora gehiago eman

da, lehentasunen eta egin beharreko jarraipen motaren arabera alegia.

Egindako lanak diseinatzeko, Galzorian dauden espezieen kasuan, IHOBek erredaktatutako Errekuperazio Planak erabili dira erreferentzi bezala. Oraindik ofizialki onartuak ez dauden Plan hauek, EAEn Galzorian dauden landare espezieen kontserbazioa bermatzeko lanabesak izateko xedea dute. Bertan hainbat lan-ildo finkatzen dira, eta horietako bakoitzean helburu espezifikoak zehazten dira.

2015. urtean zehar bildutako informazioaren laburpena honakoa da:

- *Angelica razulii*: ezin izan da Aiako harrian dagoen nukleoa konfirmatu. 2008. urtean aurkitu ziren 3 aleetatik ez da bat bera ere aurkitu.

- *Drosera intermedia*: Gipuzkoan dauden hiru populazioen kartografia berri da Jaizkibelen, Belabieta eta Adarra-Usabelartzan.

- *Hugueninia tanacetifolia* subsp. *suffruticosa*: EAE osorako espezie honen populazio bakarra ezagutzen da. Espeziearen nukleo berriak sortu ahal izateko bi gune definitu dira, bata nukleo originaletik gertu, Kataberako karstean, eta bestea, ekialderako, Aizkorriko tontorretik gertu.

- *Spiranthes aestivalis*: aurten 22 ale zenbatu dira eta bakoitzaren banaketa irudikatu da. Urte honetako datuekin 3 urte jarraian egin dira zentsoaren azterketa.

- *Vandenbochia speciosa*: Artzun (Jaizkibel) egin den habitat lehengoratzeko lanen aurretiko diagnostikoa egin da. Nukleoaren kartografia egin da eta nukleoan dauden gametofito eta esporofitoen kartografia egin da eskala zehatzean.

- *Woodwardia radicans*: Jaizkibelgo populazioaren zentsua egin da. 2014. urteko datuekin konparatuz ale gehiago daudela ikusi da eta espe-



Angelica razulii espeziearen alea loretan.



Artzanburu mendiko *Hugueninia tanacetifolia* espeziearen populazioa loretan.

ziearen ugalketa begetatiboaren ahalmen handia behatu da.

Lan honekin espeziek hauen guztien biziraupena bermatu nahi da, kasu bakoitzerako kontserbazio eta kudeaketa proposamenak luzatuz.

Mendiko lanean jasotako datuak analizatu eta interpretatu ondoren kudeaketarako proposamenak erredaktatu dira. Galzorian katalogatutako espezieen kasuan, kudeaketarako proposamen askok Errekupera-

zio Planean proposatutako jarduerekin bat egiten dute, baina zehaztasun handiagoarekin, Planetako informazioari 2011 urteaz geroztik jasotako informazio berria gehitzen baitaia. Era honetara, aurkeztu den lanaren xedea Planen jarduera multzoa aplikatzen hasia izan da "espezie hauek arrisku egoerara hurbiltzea eragiten duten mehatxuei aurre egin eta kontserbazio egoera egoki batean euren populazioak errekuperatu eta mantendu ahal izateko" alegia.

GIPUZKOAKO LANDARE MEHATXATUEN MONITORIZAZIO ETA KUDEAKETA LANAK

Finantzabidea: Gipuzkoako Foru Aldundia

Parte-hartzaileak: Joseba Garmendia, Leire Oreja, Maialen Arrieta, Mari Azpiroz

Lan honen bitartez EAEko espezie mehatxatuen katalogoan Galzorian eta Kaltebera kategorian dauden 9 espezieen informazioa biltzeaz gain, 2015an zehar Aranzadi Zientzia Elkarteko Botanikako kideek mendiko lanean aurkitutako espezie mehatxatuen populazio berriak bildu dira.

Gainera, orain arte ezagutzen den landare mehatxatuen kartografiaren lehen bilketa orokorra egin da, datozen urteetan Gipuzkoako landare mehatxatuen informazioaren diagnostia eta errebisioa egite aldera. Gipuzkoan Espezie Mehatxatuen Katalogoan dauden 105 landare-espezieen aipamenak daude eta horietako askoren populazioak aspalditik bisitatu gabe daude eta haien informazioa zaharkitua egoteaz gain, ez da kartografia zehatza ezagutzen. Hutsune hau Kaltebera, Bakana eta Interes Bereziko kategoriako espezieei dagokie hein handi batean.

Aztertutako 9 espezieen kasuan, espezie bakoitzarentzat egingako jarraipen-lana ezberdina izan da. Bakoitzaren arazoan arabera ezagutza ezberdin batean sakontzea erabaki da. Bestalde, espezie batzuen laginketan beste batzuenetan baina denbora gehiago eman da, lehentasunen eta egin beharreko jarraipen motaren arabera alegia.



Menyanthes trifoliata espeziearen lorea.

- *Arnica montana*: Amezketan espezie honen hiru nukleo berri aurkitu dira. Orain arte ezagutzen ziren nukleoek ale kopuru oso mugatua zuten bitartean, 2015 urtean aurkituriko nukleoak oso handiak dira ale ugalkorrei dagokienez. Bereziki horietako bat non 13.500 ale ugalkor baina gehiagoko populazioa estimatu da. Nukleo hauek gainera Bedaio eta Ondarre arteko nukleoaren lotura lana egiten dute.

- *Carex hostiana*: Mendizorrotzeko populazioan 2013 aurkitu ziren orbanetatik batek bakarrik bizirauten du eta gara ugalkorren zenbaketa arabera orbain hori bere hortan mantentzen da. Hala ere, hezegunearen bilakaerak espeziearen biziraupena arriskuan jartzen du. Urbain gara ugalkorren kopuruak gora egin du eta aurten ere, *C. hostiana* eta *C. demissa* espezieen arteko hibrido antzua aurkitu dira, kontserbazio arazo larria izan daitekeelarik gertaera hau.

- *Cicerbita plumierii*: Leitizaranen egindako zentsoaren datuek populazioak beharakada bat izan duela adierazten du azken urteetan orain arte Leitizaranen ezaguna den gune bakarrean.



Hibiscus palustris espeziea loretan.

- *Daphne cneorum*: 2008 urtetik 2015eka *Daphne cneorum* aleen kopurua jaitsi egin da ia gune guztietan. Beheranzko tendentzia hau oso nabaria da Erlaitz osatzen duten guneeetan aleen %93 hil delarik. Beste guneeetan ere ale kopuruaren jaitsiera %53-75 artekoa izan da.

- *Hibiscus palustris*: aurreko urteetako porrota dela eta, aurtengoan berri ere Sakeletzeko populaziotik bildutako hazietatik lorturiko aleekin nukleo berri bat sortzeko ahalegina egin da Inurritzako putzuan.

- *Medicago marina*: 2014an Zarauzko pasarela berriaren eraikitzea dela eta Arizmendiko mintegira translokaturako aleak eta hozitze protokoloetatik (2012. urteko akzesioak) lorturikoak duna sisteman landatu dira Inurritzako populazioa indartzeko asmoz.

- *Menyanthes trifoliata*: espeziearen 2012an Urbiako populazioan bersartzapenak egin ziren, 3 nukleo berri sortu. Ale hauen denen jarraipena egin da eta urtetik urteera aleak galduz doazela behatu da.

- *Prunus padus*: Portu Zaharra eta Oltza arteko eremuko dolina batean 6 ale landatu dira.

- *Ranunculus aconitifolius*: Gipuzkoan hiru populazioak konfirmatu dira eta ale kopuruari dagokionez egongor mantentzen direla ikusi ahal izan da. Gainera, espeziearen nukleo berri bat sortzeko gunearen proposamena ere luzatu da.

Gainera, 2015an zehar Aranzadi-ko Botanikako kideek mendiko lanean aurkitutako espezie mehatxatuen populazio berriak bildu dira.

ACTUALIZACIÓN Y REVISIÓN DE LAS FICHAS DE LA FLORA DE LA CAPV DE LA WEB DE BIODIVERSIDAD DEL GOBIERNO VASCO

Financiación: Gobierno Vasco

Participantes: Joseba Garmendia, Leire Oreja y Yoana García

Las páginas webs con contenidos sobre biodiversidad son cada vez una herramienta más eficaz para la transmisión de la información. Esto requiere un arduo trabajo para crear una estructura lo más intuitiva, funcional y accesible posible para que la información se pueda consultar de forma eficaz y rápida. Este tipo de páginas webs tiene la ventaja de que la actualización de la información es relativamente sencilla.

Mediante este trabajo se ha actualizado o revisado parte de la información que alberga la web de biodiversidad del Gobierno Vasco en su apartado de "especies" (<http://www.ingurumena.ejgv.euskadi.net/>). En concreto se ha trabajado con un listado de 141 especies (78 catalogadas como Vulnerables y 63 sin catalogar). Se han actualizado los apartados de descripción, distribución y hábitat de las especies sin catalogar.

En el caso de las especies catalogadas además de los apartados mencionados se ha añadido información referente a la población (tamaño y tendencia) y a la problemática que presentan en la CAPV. Además, gracias al trabajo de campo realizado se han aportado fotografías de 40 especies clasificadas como Vulnerables.



Fotografías de las especies *Gentiana lutea* y *Lavatera arborea* incluidas en la web de biodiversidad del Gobierno Vasco.

CONSERVACIÓN DE LA BIODIVERSIDAD VEGETAL EN LOS ARENALES COSTEROS CANTÁBRICOS (LIFE+ ARCOS)

Financiación: Comisión Europea y participantes

Participantes: Universidad de Oviedo, Ministerio de Medio Ambiente, Diputación Foral de Gipuzkoa, Ecología litoral S.L., Sociedad de Ciencias Aranzadi y Gobierno de Cantabria

Este proyecto está liderado por la Universidad de Oviedo y se desarrollará desde julio del 2014 hasta diciembre del 2018. Su objetivo es la mejora del estado de conservación de 10 ecosistemas dunares de la costa cantábrica. En el caso de Gipuzkoa se trabajará en la ZEC ES2120004 Ría de Urola y en la ZEC ES210009 Biotopo Protegido de Iñurritza.

Durante este año el Departamento de Botánica ha participado, en las acciones de recolección de



germoplasma, desarrollo de protocolos de cultivo de especies relevantes para la restauración de ecosistemas dunares, además de las acciones de comunicaciones y gestión del proyecto.

Este año el equipo técnico ha recolectado 23 accesiones de un total de 15 especies, que sumadas al material obtenido en 2014 elevaría la cifra a 44 accesiones de 17 especies. Las especies son las siguientes: *Alyssum loiseleurii* subsp. *loiseleurii*, *Cakile integrifolia*, *Calystegia soldanella*, *Dianthus hyssopifolius*, *Eryngium maritimum*, *Euphorbia paralias*, *Galium arenarium*, *Glaucium flavum*, *Festuca vasconensis*, *Helichrysum stoechas*, *Herniaria ciliolata*, *Koeleria albescens*, *Honkenya peploides*,



Medicago marina.



Alyssum loiseleurii subsp. *loiseleurii*.



Protocolos de cultivo en el vivero de Arizmendi.



Protocolo de cultivo de la especie amenazada *Linaria supina* subsp. *maritima*.

Linaria marítima, *Medicago marina*, *Pancratium maritimum*, *Solidago virgaurea* subsp. *macrorhiza*.

Junto con la Universidad de Oviedo/Jardín Botánico Atántico y

la Diputación Foral de Gipuzkoa, se han realizado las pruebas de germinación en laboratorio y protocolos de cultivo en vivero de las especies recolectadas en el proyecto. Este

materias posteriormente servirá para desarrollar las acciones de restauración y revegetación de las dunas cantábricas en los siguientes años.

MEMORIA FINAL DE LOS TRABAJOS PARA EL CULTIVO EX SITU DE *RHYNCHOSPORA FUSCA* (L.) AITON FIL.

Actividad incluida en la acción "Mejora del estado de conservación de los enclaves higroturbosos" del LIFE+ PROIZKI
 Financiación: Diputación Foral de Álava/Araba dentro del LIFE+PRO-IZKI, Diputación Foral de Gipuzkoa y Gobierno Vasco.
 Participantes: Maialen Arrieta, Leire Oreja, Joseba Garmendia, Amaia Arrese-Igor, Larrait Zabala, Aitziber Zufiaurre, Yoana García, Lorena Uriarte y Mikel Etxeberria

Rhynchospora fusca (L.) Aiton fil. es una ciperácea de distribución circum-boreal, cuyas poblaciones más sureñas en Europa se encuentran en el norte de la Península Ibérica. Está incluida en la Lista Roja de la Flora Vasculares Española como EN y como en Peligro de Extinción en el Catálogo de Especies Amenazadas de la CAV. Actualmente se conoce una

única localidad en el trampal de Galbaniturri.

El objetivo principal del LIFE+PROIZKI, restaurar y conservar a largo plazo el melojar de Izki y los hábitat integrados en la Directiva Hábitat que interaccionen con él.

En estos objetivos se integra el trabajo realizado durante esta memoria, producir planta de *Rhyn-*

chospora fusca para su uso en el reforzamiento de la población de Galbaniturri (Parque Natural de Izki) y conservar ex situ una colección de semillas para su uso en futuras actuaciones de conservación.

Durante el LIFE se han recolectado 3 accesiones (113/2012, 119/2014 y 85/2014) que suman unas 10.000 semillas de *Rh. fusca*, de las que se

conservan más de 8.000 en el Banco de Germoplasma Vegetal de Gipuzkoa.

Con el fin de producir planta para poder reforzar la población original se han utilizado dos medios: Producción de planta a partir de las semillas recolectadas y producción de la planta a partir de material vegetativo recolectado. Aunque el cultivo de la especie mediante mecanismos vegetativos ha sido exitoso (tasa de pervivencia del 100%), el mayor esfuerzo se ha hecho en la obtención de plantas partiendo de las semillas recolectadas en campo ya que la obtención de ejemplares genéticamente diferenciados debería priorizarse antes que la reproducción vegetativa de la especie. En total se han producido cerca de 500 plantas, la mayoría a partir de material vegetativo.

En relación a este esfuerzo, partiendo de los resultados obtenidos en 2013, durante el 2015 se han realizado nuevos ensayos y se han conseguido mayores tasas de germinación en los protocolos realizados (10%). Pero aun así, la tasa de germinación sigue siendo relativamente baja, aunque la posterior supervivencia de las plántulas obtenidas ha mejorado. Ya que teniendo en cuenta el paso crítico del repicado y posterior cultivo, las plántulas han sido expuestas a un periodo de aclimatación en las mismas condiciones en las cuales han germinado.

Todavía es necesario profundizar en el trabajo de laboratorio para poder determinar las razones que hacen que el taxón presente una tasa de germinación tan baja. Podría tratarse de problemas derivados de una baja variabilidad genética de las poblaciones, lo que conllevaría problemas de consanguinidad y baja viabilidad de las semillas.

En la restauración de la población de Galbaniturri y la fundación de nuevos núcleos se han utilizado plantas cultivadas a partir de material vegetativo (rizomas). Este método ha demostrado ser más efectivo para la producción de planta a ma-

yor escala, aunque plantea varios inconvenientes; desde el punto de vista de la variabilidad genética de los nuevos núcleos creados y por el hecho de mermar, en parte, el tamaño de la población original.

En definitiva, se recomienda seguir trabajando en los aspectos en los cuales los resultados no han sido del todo exitosos, así como, en los protocolos de germinación y en el método de reforzamiento de la población de Galbaniturri. De esta manera se completaría el desarrollo del método para conseguir más individuos de *Rhynchospora fusca* con gran variabilidad genética que se puedan reintroducir el campo con una alta tasa de supervivencia.



Plantas de *Rhynchospora fusca* producidas a partir de las semillas recolectadas durante el año 2014.

SEGUIMIENTO DE TRABAJOS DE DESBROCE PARA LA SUPERVIVENCIA DE *DAPHNE CNEORUM* EN IRUN

Financiación: Ayuntamiento de Irun

Participantes: Anaïs Mitxelena, Mari Azpiroz y Maddi Otamendi

Desde el año 2010 el Ayuntamiento de Irun viene realizando desbroces selectivos dentro de la ZEC y Parque Natural de Aiako harria, en las áreas donde se encuentra la planta *Daphne cneorum*, catalogada como En Peligro de Extinción, para el mantenimiento de un mosaico de pasto y matorral necesario para la planta.

En el año 2015 se han realizado desbroces selectivos en seis de los nueve núcleos de *Daphne cneorum*

presentes en Irun. Estos trabajos de desbroce y seguimiento de los mismos se han realizado en el mes de noviembre.

Para los desbroces se han utilizado dos tipos de máquinas: desbrozadoras provistas de cabezal de cuchilla y una minicargadora Bodcat 4.500 kg con orugas de goma triangulares.

Las desbrozadoras manuales se han utilizado alrededor de los indi-


viduos de *Daphne cneorum* asegurándose de que no se desbrozara o se pisara ningún individuo. La minicargadora Bodcat en cambio, ha sido utilizada de forma más mecánica en zonas más alejadas de los individuos.

Al igual que se ha venido haciendo en los años anteriores, se han marcado con cintas de plástico todos los ejemplares de *D. cneorum* observados para facilitar el trabajo de de

desbroce de los operarios y evitar que los ejemplares fuesen dañados.

En total, se ha desbrozado una superficie de aproximadamente 11 ha observándose lo siguiente: parte de los ejemplares presentaban síntomas de estar enfermos; algún ejemplar mostraba síntomas de depredación de algún insecto; y pese a ser noviembre y tratarse de una planta que florece a principios de primavera, algunos ejemplares se encontraban en flor.

Como conclusión, se observa una invasión generalizada de la zarza en el conjunto de las parcelas y en las zonas con zarza la planta *Daphne cneorum* tiende a desaparecer. La argoma también se densifica en todos los enclaves hasta desaparecer en muchos de ellos el mosaico de pasto y matorral que necesita la especie. Este proceso de matorralización coincide con la desaparición del ganado ovino en esta zona de Aiako Harria.




Cartografía detallada de los desbroces realizados en 2015.




Minicargadora Bodcat desbrozando.



Cintas marcando núcleos con ejemplares de *D. cneorum*.



Ejemplar de *D. cneorum* en flor en noviembre.



Ejemplar de *D. cneorum* enfermo en el que se observan signos de depredación.

HERNANIKO LASTAOLA, EPELE, EREÑOTZU ETA PAGOAGA BAILAREN HABITAT, FLORA ETA FAUNAREN AZTERKETA ETA BALIO NATURAL HORIEK INDARTZEKO PROPOSAMENAK LUZATZEA

Finantzabidea: Ereñotzuko Entitate Txikia

Parte-hartzaileak: Anaïs Mitxelena, Yoana García eta Iñaki Sanz-Azkue

Ondare natural eta kulturalari buruzko lan ugari egin dira Ereñotzun azken urteotan. Hori dela eta, 2015an egundaino egindako lan guzti hauek modu antolatua eta erakargarria bil-tzen dituen txostena aurkeztu da. Proiektu honetan jarraitutako pau-suak ondoren zehazten dira:

1. Bilketa bibliografikoa: orain arte natura zein kultura on-dareari dagozkien lanen bilketa bibliografikoa egin da lehen-dabizi.
2. Landaredi-maparen egunera-tzea: egun hazten den landa-redia ikertu da, gunearen ikus-pegia orokor bat edukitzeko eta bertan aurki daitezkeen inte-resezko habitatak baloratze-ko. Horrela, ikerketa-eremuko landaredi-mapa berri-tu da. Era berean, berri-tutako landaredi-mapa honek Habitat berezien mapa egiteko balio izan du.
3. Balorazioa: Bildutako informa-zioa (intereseko espezieak, habitatak, elementu kultura-lak, etab.) bailara bakoitzean aurkezten duen presentziaren arabera sailkatu da. Horre-la, balioztapen-sistema baten bitartez bailara bakoitzaren balioa estimatu eta ondorengo eskalaren arabera sailkatu da, balio Oso handia, Handia, Ertai-na, Gutxi eta Oso gutxi.
4. Proposamenak luzatu bailara bakoitzaren potentzialaren ara-bera: Behin bailara bakoitzak natura zein kultura ikuspuntu-tik duen potentzialitatea azter-tuta, bailara bakoitzean zentra-tu eta kudeaketarako proposa-menak luzatu dira balio horiek babestu, hobetu eta zabaltzea-rrin.



Ikerketa-eremua osatzen duten lau bailarak: Epele, Ereñotzu, Lastaola eta Pagoaga.

5. Aukerazko diru-laguntzen laburpena: Azkenik, proposa-tzen diren neurriak gauzatu ahal izateko egon daitezkeen diru-laguntzak aipatu eta azal-du dira.

Emaitza hau izan da: aztertutako 4 bailaretatik Ereñotzu bailarak lor-tu du balorazio altuena Oso altua izendapenarekin, bigarren Pagoa-gak Altua izendapenarekin, ondo-ren Epele Ertaina izendapenarekin eta azkenik Lastaola litzateke Baxua izendapenarekin.

EPELE, FAGOLLAGA, EREÑOTZU ETA LATSA EREMUEI IZAERA NATURAL ETA KULTURALA INDARTZEKO HIRU IBILBIDE DIDAKTIKOEN DISEINUA (2015KO IRAILA)

Finantzabidea: Ereñotzuko Entitate Txikia
Parte-hartzaileak: Anaïs Mitxelena, Yoana García eta Iñaki Sanz-Azkue

“Hernaniko Lastaola, Epele, Ereñotzu eta Pagoaga bailaren habitat, flora eta faunaren azterketa eta baliu natural horiek indartzeko proposamenak luzatzea” proiektuari erantzen zaion lana da eta bere helburua Ereñotzuko ondarea bere orokortasunean ezagutzera emateko tresnak proposatzea da.

Horretarako jendearentzat iristeko errazak, atseginak eta didaktikoak izango diren hiru ibilbide txiki

proposatu dira: 1) Epele-Zepadi-Etxetxuita, 2) Ereñotzu-Fagollaga eta 2) Ereñotzu-Latsa. Guztiak, motzak dira eta ibiltzea bera baino, dibulgazioa eta aisialdia dituzte xede nagusitzat.

Epele, Fagollaga, Ereñotzu eta Latsa auzoak, jatetxe-tabernak, autobus geltokiak eta aparkalekuak seinaleztatuak.



KUDEAKETA PROIEKTUAK

GOIERRIKO ESKUALDEAN ESPEZIE INBADITZAILEEN ERRADIKAZIORAKO LANAK (2011-2015)

Finantzabidea: Goierriko Garapen Agentzia (GOIEKI)
Parte-hartzaileak: Mari Azpiroz eta Lorena Uriarte

2010ean hasi zen proiektu honen helburu nagusia Goierriko flora eta fauna inbaditzailearen erradikazioa da. Proiektu Globala Goierriko 18 udalerrietan gauzatzen ari da: Arama, Altzaga, Ataun, Beasain, Gabiria, Gaintza, Idiazabal, Itsasondo, Lazkao, Legorreta, Mutiloa, Olaberria, Ordizia, Ormaiztegi, Segura, Zaldibia, Zegama eta Zerain. Herri hauez gain ekintzak Altzaniako Partzuergoan eta Enirio-Aralarko Mankomunitatean ere egiten ari dira.

2015ean, lehenengo eta behin aurreko urteetako *Reynoutria japonica*, *Helianthus* sp. *Cortaderia selloana* eta *Buddleja davidii* espezieen kartografian oinarrituz eremu osoa miatu da. Behin miaketa lanak egin ostean espezie bakoitzaren erazketarako tratamenduak aplikatu dira.

Tratamenduekin amaitu ostean ibar-basoen lehengoratzeko lanei jarraipena eman zaie bertako zuhaitzen landaketekin. Horretarako,



Helianthus generoko landareari herbizida aplikatzen.


erradikazio lanak gauzatu diren ibai-ertzetan bertako zuhaitz eta zuhaixken (haltza, sahatsa, intsusa, lizarra...) landaketak egin dira urte amaieran.

Kartografia eguneratuari esker 2011 urtean hasita aplikatu den tra-

tamenduen eraginkortasuna neurtu ahal izan da. Ondoko taulan espezie bakoitzaren azaleraren bilakaera ikus dezakegu 2012 urtetik gaur arte.

2012az geroztik egindako erazketa lanak eraginkorrak izan direla ikusi da. Bereziki, lehenengo urteko

lanak izan dira eraginkorrak eta hurrengo urteetako lanekin populazioak kontrolpean egotea lortu da. Izan ere eremu dentsoak osatzen dituzten landareen tamaina asko murriztu da eta honekin batera herbizidaren transpirazio azalera ere bai. Ondorioz tratamenduek eragiten dien kaltea motelagoa da baina eraginkorra izaten jarraitzen du. *Helianthus tuberosus* espeziearen kasua salbuespena da, izan ere, espezie hau, gutxi bada ere, ugaritzen ari da estaldura dentsoak hartzen dituen eremuan tratamendua jasan arren. 2015ean eraginkoratsuna hobetzeko helburuarekin partzela esperimentaletan tratamendu ezberdinak egin dira.



2012-2015 urteen artean espezie bakoitzaren azalera ha-tan adierazten dituzten irudiak.

TOLOSALDEAN ESPEZIE INBADITZAILEEN ERRADIKAZIORAKO LANAK. III. FASEA

Finantziazioa: Tolosaldea Garatzen

Parte-hartzaileak: Lorena Uriarte, Mari Azpiroz, Maialen Arrieta eta Mikel Etxeberria

Tolosaldea Garatzen 2012 urtetik ona ibai-ertzeko 4 landare inbaditzaileen erauzketa/kontrola erronka duen ekintzak bideratzen ari da. Tolosaldean *Reynoutria japonica*, *Buddleja davidii*, *Helianthus sp* eta *Cortaderia selloana* landare espezie inbaditzaile hauen presentzia batez ere ibai-ertzetan oso altua izanik eta hartzen duten azalera urtez-urte hedatzen zihola ikusirik lanean

hastea erabaki zen honako helburuekin: biztanleria arazoaz jabe egitea eta sentsibilizatzea, flora inbaditzailearen intzidentzia eza gutzea, erauzketa eta ibar-basoaren berreskurapena.

Proiektu hau Tolosaldeako 28 udalerrietan gauzatu da: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketak, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Be-

rrobi, Bidegoian, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu, Lizartza, Orendain, Oresa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil.

Lehenik eta behin 2012tik ona urteko espezie inbaditzaile hauen banaketa aztertu da. Honekin espezie hauek ikerketa-eremuan duten egoera jakin ahal izan da eta aktuzio eremuen aukeraketa erraztu du. Behin azalera ezagututa erauzketa lanei ekin zaie hainbat tratamendu aplikatuz.

Ondoren ibai-ertzeko habitat naturalen errestaurazioari ekin zaio zuhaitz eta zuhaisken landaketaren bidez eta horretarako eremu egokiak aukeratu ondoren egin dira landaketak.

Azkenik, landare espezie inbaditzaileen inguruko informazioa eta sentsibilizazioa eta oro har, biodibertsitatearen babesaren inguruko sentsibilizazioa oso beharrezkoak da. Izan ere, gero eta jende gehiago dira arduratuta ingurugiro gaitan eta administrazio ezberdinetatik burutzen ari diren lanen inguruan baina informazioa ez dago nahikoa



Reynoutria japonica 2013an tratatzen hasi aurretik. Aleak langilea baino askoz handiagoak ziren eta mantxa monoespezifikoa osatzen zituzten.

zabalduta herritarren artean. Horregatik, aurten ezagupen kanpaina udaletara bideratu da; batetik, udaletako langileak landare espezie inbaditzaileen inguruan informazioa zabaltzeko, eskualde mailan egiten ari garen lan koordinatuari buruz jakiteko eta azkenik, Tolosaldean zein estrategia erabiltzen ari garen eta erabili beharko genukeen eztabaidatzeko.

Lau espezieak kontuan hartuaz ondorio nagusia espezie hauek gehienbat Oria ibaian agertzen direla da. Oria ibaiko ibai-ertzako landarediaren egitura egokia ez izatean landare inbaditzaileek bertan finkatzeko erraztasun handiak dituzte. Orokorrean, Oria ibaian lau landare inbaditzaile hauen (bereziki *Reynoutria japonica*, *Buddleja davidii* eta *Helianthus* sp.) presentzia ugaria



Reynoutria japonica populazio askoren egungo egoera. Ale txikiak eta ez dutenak geruza monoespezifikoa osatzen (landare belarkara ugari). Azalera berdina betetzen dutela kartografiatzen da baina azalera honetako populazioan egoera ezberdina da.

da. Aldiz, Oria ibaiaren azpiarroetan espezie hauen presentzia (azalera) txikiagoa da eta adibidez Leitzarango kasuan, ale solteak besterik ez dira aurkitu. Garbi dago ibai-ertzeko landarediaren egoera hobea den le-

kuetan espezie hauek egoteko aukera txikiagoa dela. Beraz, horretan datza ibai-ertza berreskuratzearen garrantzia bertako espezieen landaketa bidez.

LEGAZPIKO FLORA EXOTIKO INBADITZAILEAREN ERRADIKAZIOA ETA SENTSIBILIZAZIOA 2013-2015

Finantzabidea: Legazpiko Udala

Parte-hartzaileak: Yoana García eta Lorena Uriarte.

2015. urtean *Cortaderia selloana*, *Fallopia japonica*, *Buddleja davidii* eta *Helianthus x laetiflorus* espezieen erradikazioari jarraipena eman diogu Legazpiko Udalerrian.

1. Aurreko urteetako tratamenduen jarraipen-lanak


2015. urtean landare exotiko inbaditzaileen errebisioak egin dira Legazpin landare hauen lokalizazio berriak bilatu eta tratamenduen eraginkortasuna neurtzeko asmoz.

Urtetik urtera landare hauen ale batzuk hiltzen joan badira ere urteroko mendiko-lana eta herritarren parte hartzearen ondorioz landare hauen lokalizazio berri batzuk topatu dira.

Puntu batzuk 2013. urtetik gaur arte irauten dutela ikusten den arren horiek hartzen duten azalera nabarmenki murriztu dela esan behar da.

2. Erradikazioa-lanak

Landare hauek ezabatu edota beraien okupazio azalera murrizteko



Legazpiko landare inbaditzaileen banaketa 2013., 2014. eta 2015. urteetan. Larrosaz, *Buddleja davidii* espeziea; Laranjaz, *Cortaderia selloana* espeziea; horiz, *Helianthus x laetiflorus* espeziea eta berdez, *Reynoutria japonica* espeziea.

hiru urteetan zehar tratatuak izan dira. Landare bakoitzaren eta gune bakoitzaren berezitasunen arabera metodologia ezberdina erabili da; eskuzko erauzketa, mozketak edota herbizidaren aplikazioa lainoztatzea edo xiringa bitartez. Lan hauetarako kronogramaren diseinua landareen

fenologian oinarritu da. Hau da, erradikazio lanak landare espezie bakoitzaren loraldian burutu dira. Metodologia hau urteko aplikazio bakarrarekin landareari ahalik eta kalte gehien eragitean oinarritzen da.



Brinkola auzoan, Urola ibaiaren ertzean *Reynoutria japonica* espeziearen bilakaera 2013. eta 2015. urteen artean.

3. Habitat naturalen lehengoritzea

Espezie exotiko inbaditzaileak hazten ziren habitatak errestauratzeko hazkuntza azkarreko bertako zuhaitz eta zuhaixken landaketak burutu dira (haltzak, lizarrak, sahatsak, urkiak, etab.). Landaketa hauek hazten ari diren heinean sortzen duten itzalak landare inbaditzaileen hazkuntza eragozten ari da.

4. Landare exotiko inbaditzaileen arloan parte-hartzea sustatzea

Legazpiko herritarrek espezie exotiko inbaditzaileen inguruan sentsibilizatzeko horien inguruko informazioa biltzen duen liburuxka sortu eta banatu zen. Liburuxka honetan espezie hauei buruzko informazioa eta

partikularrentzako erradikaziorako jarrabideak azaltzen dira.

5. Herritarren sentsibilizazioa: landare inbaditzaileak eta ibar-basoen kontserbazioa

Garrantzi berezia eman zaie ibar-basoei. Ibar-basoak oso kaltetuak izan dira urteetan zehar gure lurraldean. Herri eta hiriek, industriaguneez, landa-lurrek... ordezkatu dituzte gehienetan, gaur egun horien orbain txiki eta gogorki zatikatuak aurkitzen ditugularik. Zatiketa honek euren erlazioanaturako biodibertsitate aberatsa nabarmenki murriztea eragin du. Guzti honek landare exotiko inbaditzaileentzako erakargarri bihurtu ditu, habitat bereziki sentikorrek bilakatuz.



Honenbestez, habitat mota honen garrantzia eta egun aurkezten duen egoera herritarren artean zabaltzeko, erreka eguna ospatu eta informazio-panelak sortu eta aurkeztu dira.

BIOANIZTASUNAREN KONTSERBAZIOERAKO EKINTZAK AIAKO HARRIA KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUAN: PUTZU SARE BATEN SORRERA/EGOKITZAPENA ETA LANDARE EXOTIKO INBADITZAILEEN ERAUZKETA

Finantzabidea: Hernaniko Udala

Parte-hartzaileak: Yoana García, Mikel Etxeberria eta Itziar Aginaga

Kartografia lanetan Urumea ibai ertzean. Atzean *Reynoutria japonica* espeziea.



Egitasmoaren helburu nagusia Aia-ko Harria eta Urumea ibaiaren artean kokatzen diren haranetan bioaniztasunaren mesedetan kontserbazio ekintzak aurrera eramatea izan da, hiru helburu garbirekin: (1) bertako bioaniztasuna indartzea, (2) KBEen arteko konexio bideak (korridoreak) sendotzea putzu sare bat egokituz, eta azkenik (3) bertako ibar-basoen berreskurapena ahalbidetu landare exotiko inbaditzaileak erauziz eta bertako landaredia eza-



Crocosmia x crocosmiiflora espeziearen eremuetako bat Urumea ibai ertzean.

rriz. Proiektu honetan Botanika Sailak eta Herpetologia Sailak parte hartu dute. Atal honetan Botanika Sailak gauzatu dituen lanak azaltzen dira.

**IBAR-BASOEN
BERRESKURAPENA
Flora inbaditzailearen
kartografia**

Landare exotiko inbaditzaileen kartografia burutu da Urumea ibaian eta Epele, Usoko eta Aparrain erretetan. Kartografiatu diren espezieak ondorengoak izan dira: *Buddleja davidii*, *Cortaderia selloana*, *Crocosmia x crocosmiiflora*, *Reynoutria japonica*, *Phytolacca americana* eta *Phyllostachis aurea*.

Mendian jasotako datuekin mapa bat sortu da. Mapa hau ondorengo erradikazio lanak burutzeko ezinbestekoa izan da.

Landare espezie inbaditzaileen erradikaziorako tratamendu kimikoa (herbizidaren aplikazioa) erabili da gehien bat. Herbizida, egun



Flora inbaditzailearen kontrola/erradikazioa.

eguzkitsuetan eta ondorengo egunetan euria egitea aurreikusten ez zenean aplikatu da faunaren ugalgaraiak errespetatuz. Aldi berean lan hauek ahalik eta eraginkorrenak izan zitezen erradikatu nahi ziren landareen loraldiarekin bat egitea bilatu da.

Balorazio lanek 2016ko udaberri itxaron beharko badute ere egindako lanek jarduera eremuko espezie inbaditzaileen estaldura nabarmenki jaitea eta ibar-basoen kalitatea eta azalera handitzea espero da.

LANDARE INBADITZAILEEN ERRADIKAZIOA JAIZKIBELGO ETA TXINGUDI-BIDASOAKO KBE-ETAN ETA HABITAT ZUZENTARAUAN BARNERATUTA DAUDEN CLADIUM MARISCUS FORMAZIOAREN ETA KOSTAKO TXILARDIEN ERRESTAURAZIO LANAK JAIZKIBEL KBE-AN

Finantzabidea: Hondarribiko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak.

Parte-hartzaileak: Mari Azpiroz, Anaïs Mitxelena, Yoana Garcia, Maialen Arrieta eta Lorena Uriarte

Munduko dibertsitate biologikoaren galeraren lehen arrazoa habitataren galera da eta bigarrena, habitatetan hazten diren espezie exotiko inbaditzaileak eta haien efektuak.

Landare exotikoen ezabaketa ez da jardun berria. Euskal Autonomi

Erkidegoko (EAE) hainbat administratziok zenbait landare exotikoen ezabaketa-lanak egiten hasiak dira, hala nola *Baccharis halimifolia*, *Cortaderia selloana*, *Reynoutria japonica*...

Hondarribiko Udala ere 2011a gerostik Jaizkibelgo 92/42/CEE Habitat

Zuzentarauan dauden habitatak errestituzeko ekintzak burutzen dabil. Bestalde, 2012an Gipuzkoako Foru Aldundia kostako *Erica vagans* txilardietan *Baccharis halimifolia*ren erradikazio lanak eta habitat honen berreskurapen lanetan hasia da.

Proiektu honetan Hondarribiko Udala, Gipuzkoako Foru Aldundiarekin elkarlanean, Jaizkibelen eta Txingudi-Bidasoan zenbait habitaten berreskurapen lanetan murgildu da: Kontserbazio Bereziko bi Eremu hauetan landare inbaditzaileen erauzketa eta bertako habitaten berreskurapenean.

Hondarribiko udalerrian gauzatu ari den proiektu honek hiru helburu nagusi ditu: 1) Jaizkibel Kontserbazio Bereziko Eremuan (KBE) eta Txingudi-Bidasoako KBEan dauden landare inbaditzaileen erauzketa; 2) Jaizkibel KBEan Habitat Zuzentzararen I. eranskinean aipatzen diren *Cladium mariscus* formazioaren eta Kostako *Erica vagans* txilardien errehabilitazio-lanak egitea. Eta Txingudi-Bidasoako KBEan landare inbaditzaileak erauzi ondoren habitata berreskuratzea landaketa bidez; eta 3) Aizpuraundiko *Cladium mariscus* formazioaren eta bertan dagoen *Thelypteris palustris* iratze mehatxatuaren jarraipena egitea, zeina Euskal Autonomi Erkidego mailan "Galtzorian" bezala katalogatua dagoen.

Helburu hauek lortzeko 2015an egin diren ekintzak honako hauek izan dira:

Aizpuraundiko *Cladium mariscus* formazioan

Aizpuraundiko *Cladium mariscus* formazioan landare inbaditzaileen eza-

baketa-lanak egin dira 2014 eta 2015ean. Landare inbaditzaileen artean bertan ugariena *Baccharis halimifolia* zen baina *Cortaderia selloana*, *Helichrysum orbiculare* eta *Pitosporum tobira* landare exotikoak ere erauzi dira.

2014ko udazkenean *Cladium mariscus* formazioan dagoen presan konporta eraiki zen. Konporta eraikitzeak, *Cladium mariscus* hezegunea berreskuratzeaz gain, *Baccharis halimifolia* landarearen birkolonizazioari aurre egitea izan du helburu.

Aizpuraundiko eremu honetan EAeko katalogoan Galzorian sailkatua dagoen *Thelypteris palustris* espezie mehatxatua egonik presak es-



Jaizkibelera Irteera



Aizpuraundiko *Cladium mariscus* formazioaren panoramika MARI3

pezie honengan duen eragina ikusteko ere azterketa egin da. Aizpuraundiko eremu honetan egin diren ekintzek *Cladium mariscus* formazioari eta *Thelypteris palustris* espeziearen populazioari onurak eragin dizkiola ikusi da. 2014ean *Cladium mariscus* espezieak 786 m²-ko azalera betetzen zuen bitartean 2015ean 1.097 m² izatera pasa da. *Thelypteris palustris* populazioak 2014ean 468,04 m²-ko azalera zuen bitartean 2015ean 855 m²-ko azalera betetzen du.

Azkenik, eremu honetan *Cladium mariscus* 1000 bat landare landatu ziren *Cladium mariscus* landarearen formazioa berreskuratzeko asmoz.

Jaizkibel Kontserbazio Bereziko Eremuan

2014ean Gipuzkoako Foru Aldundiak Kostako txilardian dagoen *Baccharis halimifolia* populazioak erauzi ditu eta Jaizkibelen *Buddleja davidii*, *Cortaderia selloana*, *Reynoutria japonica*, *Phytolacca americana*, *Helichrysum orbiculare* exotikoak ere erauzi dira. Mendiko lanean bereziki Jaizkibelgo KBEan inbaditzaile hauen ale ugari tratatu dira.

2012-2014 artean Jaizkibelen *Erica vagans*, *Erica cinerea*, *Calluna vulgaris* eta *Daboecia cantabrica* landareen haziak bildu ziren. Hazi hauetatik landarea lortu eta 2015ean landatu dira.

Azkenik, Jaizkibelen bereziki kostako txilardi inguruan *Baccharis halimifolia* inbaditzailea kendutako lekuetan 100 *Quercus pyrenaica* landatu dira.

Txingudi- Bidaso Kontserbazio Bereziko Eremuan

2014-2015ean Txingudi-Bidasoan *Baccharis halimifolia* lanak egin dira. *Baccharis halimifolia* ale handiak kimikoki tratatu dira eta hazitik jaiotako aleak eskuz kendu dira. *Cortaderia selloana* eta *Buddleja davidii* espezieen erauzteko lanak ere egin dira.

Azkenik, Txingudi-Bidasoan 100 *Tamarix gallica* zuhaitz landatu dira

Amute-Mendelu auzoan, aurretik *Baccharis halimifolia* erauzi zen eremuan.

Proiektu honi loturik Herritarren Foroan aurkezpena eta irteera egin dira.

Herritarren Foroko
aurkezpena
Hondarribiko udalean.



TRABAJOS DE RESTAURACIÓN DEL BREZAL COSTERO EN LA ZEC ES2120014-ULIA (AÑO 2014-2015)

Financiación: Ayuntamiento de Donostia y la Diputación Foral de Gipuzkoa

Participantes: Anais Mitxelena, Larraitx Zabala y Maialen Arrieta

El brezal seco costero (4040*) ocupa 14 ha en la ZEC de Ulia (el 34% de su área total), y sumándolo con la superficie que ocupa en Jaizkibel, supone el %27 de este hábitat para la CAPV. Debido al gran valor ecológico de este hábitat, la eliminación de la flora alóctona y ruderal que lo invade, es una de las medidas principales de conservación que se recoge en el DECRETO 357/2013.

Sabemos que la pérdida de hábitats y las especies invasoras, son las principales razones de la pérdida de la diversidad biológica mundial, por lo que con el fin de conservar los naturales, diferentes administraciones de la CAPV están llevando a cabo trabajos de erradicación de las especies invasoras, así como, *Cortaderia selloana*, *Reynoutria japonica*, *Baccharis halimifolia*...

El desarrollo de este proyecto debe entenderse como el seguimiento de estas actuaciones, junto con el interés del Ayuntamiento de Donostia, con el fin de conservar los brezales secos costeros de la ZEC de Ulia.

Se ha realizado una cartografía detallada de las especies invasoras (*Baccharis halimifolia*, *Buddleja davidii*, *Cortaderia selloana* y *Arundo* sp.) en la ZEC ES2120014-ULIA y terrenos limítrofes. También se han localizado los ejemplares de porte pequeño de *Pinus pinaster* que se

encuentran dispersos por el brezal seco costero. A finales de agosto se ha procedido a la erradicación de las plantas invasoras, centrándose a la abundante especie *Baccharis halimifolia*. El resultado de las erradicaciones se valorará durante la siguiente primavera.

Con el fin de restaurar los brezales también se han recolectado en Ulia semillas de *Erica vagans*, *Erica cinerea*, *Erica ciliaris* y *Calluna vul-*

garis. Para hacer germinar estas semilla se ha realizado un pretratamiento en el que se ha simulado un incendio. Actualmente los brezos germinados se encuentran en el invernadero del Vivero de Arzimendi (Urnietia). Se mantendrán ahí hasta que obtengan un tamaño adecuado para poder ser transplantados en aquellas zonas de suelo desnudo donde han sido eliminadas las plantas invasoras.



Fotografías de la cala Ilurgita de Ulia antes y después de la erradicación de la especie *Baccharis halimifolia*.

JAIZKIBEL KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUAN (KBE) DAGOEN MARTITXERREKAKO ETA BERE ARRO HIDROLOGIKOKO HABITAT NATURAL ETA SEMINATURALEN ETA FLORA ETA FAUNA MEHATXATUAREN ERRESTAURAZIO ETA KONTSERBAZIO-EKINTZAK (KONTSERBAZIO BEREZIKO EREMUA ES2120017)

Finantzabidea: Hondarribiko Udala eta Irun eta Donostiako Decathlon dendak
Parte-hartzaileak: Anaïs Mitxelena, Leire Oreja, Joseba Garmendia, Mari Azpiroz eta Ion Garin

2015. urtean Jaizkibeleko Martitxerrekako arro hidrologikoan ondoren deskribatzen diren hiru ekintzak burutu dira eta hauekin lotutako aholkularitza lanak eta jarraipen lanak egin dira.

1- Landare exotiko inbaditzaileen kartografia: 2015eko ekainean bertan dauden landare, zuhaixka eta zuhaitz exotiko inbaditzaile nagusien banaketa jaso da. Zehazki, lau espezie hauen banaketak behatu dira: *Buddleja davidii* (109 m²), *Hydrangea macrophylla* (748 m²), *Phytolacca americana* (19.009 m²) eta *Robinia pseudoacacia* (18.573 m²).

2- Iturri, hezegune eta mikrohezeguneen identifikazio, karto-

grafia eta inbentariatzea: 2015eko ekainean ere egin dira Martitxerrekako arroko iturri, hezegune eta mikrohezeguneen identifikazio, kartografia eta inbentariatze lanak. Denera, 19 hezegune/orbain kartografiatu dira eta behatu da guztiek ez dutela izaera, garrantzi eta azalera berdinak.

3- Arriestuetako Iturriaren berreskurapena: 2015eko urrian erabat kolmatatuta ageri zen Arriestuetako Iturria berreskuratu da. Eginkizun honetarako bi egun behar izan dira, bigarrenean boluntarioek parte hartu dutelarik.


Iturria berreskuratu aurretik Gipuzkoako Foru Aldundiko baso-

zainekin bisita bat egin da bi helburrekin: 1) basozainek ekintzari oniritzia ematea eta bide batez 2) ideia berriak jasotzea berreskurapenerako.

Boluntariotza eguna 2015eko urriaren 18an ospatu zen baina berreskurapen eginkizuna bi egunetan gauzatu zen:

- Urriak 17 larunbata: Aranzadi Zientzia Elkarteko bi langileek hurrengo egunean boluntarioekin egin beharreko lanak aurreratu zituzten.

- Urriak 18 igandea: boluntariotza eguna ospatu zen 20 bat pertsona bertaratu zirelarik. Lehenik eta behin Aranzadiko herpetologo



Martitxerrekako arroan topatutako landare exotiko inbaditzaile nagusien kartografia (2015. urtea).



Martitxerrekako arroan kartografiatutako hezegune mota ezberdinak koloreka.

baten azalpena eman da. Gerturatutako bi umeekin tailer bat egin zen (anfibiota eta putzuei buruzkoa). Gainontzeko parte-hartzaileekin aldiz bi talde osatu ziren: a) 4-5 pertsonen gainezkabidea eraikitzen aritu dira hormigoi azkarrarekin masa egin eta harriak elkartuz; b) gainontzeko boluntarioak, 13-15 pertsona, mikrofaunarentzat babeslekuak eratzeko lanetan aritu ziren.

Hondarribiko Udalak martxan duen proiektu hau 2016 bukaeran amaitzea espero zen. Datorren urtean egiteke geratzen diren eginkizunak honako hauek dira: landare exotiko inbaditzaileen erauzketa, pinu ale batzuen bakanketa, ibai-ertzeko basoaren eta ameztiaren errehabilitazioa eta dibulgazio eta formazio ekintzak.



Boluntarioak gainezkabidea egingo den ingurua garbitzen. Behin ingurua garbituta, hormigoi azkarrarekin masa prestatu eta gainezkabidea eraten.



(a) Babeslekuko zuloan adar eta iratzeak pilatzen. (b) Babeslekuko zuloa adar pilarekin eta alboan iratze lehorrak. (c) Babeslekua lurrazarekin partzialki estalia. (d) Boluntarioak lurra jasotzen mikrofaunarako izango den babeslekuan botatzeko.



KOSTAKO TXILARDIAREN LEHENGORATZEA DEBA-ZUMAIARA TARTEKO ITSASERTZAN

Finantzabidea: Zumaia udala // Parte-hartzaileak: Leire Oreja eta Maialen Arrieta

Proiektu hau Ingurumen eta Lurralde Politikako sailak garapen jasangarria sustatzen duten ekintzak gauzatzen dituzten udalei, mankomunitateei, beste toki-entitate batzuei, toki-erakunde erkideei, tokiko garapen-agentzietei eta tokiko merkataritza-sozietateei ematen dien dirulaguntzen 2014. urteko deialdian onartu zen (EHAA, 2015-III-3) eta onuraduna Zumaia Udala da.

Deba-Zumaia Tarteko Itsasertze-ko Biotopo Babestuan (ES212016) aurkitzen diren kostako txilardiak (Habitat Zuzentzarauko lehentasunezko habitata 4040* kodearekin) lehengoratzeko da lan honen xedea, eta bide batez, habitat honetan bizi diren hainbat espezieen kultiborako

protokoloak martxan jartzea. Helburu hau lortzea erronka handia izango da, izan ere, habitat honetako espezie egituratzaileen landare ekoizpen handia lortu nahi da, bertako landaretik jasotako hazitik abiatuz. Ondoren, hazitik lortutako landareak

itsasertzean landatuko dira, txilardien kontserbazio-egoera hobetuz.

Aurten 2014. urtean hasitako hazi bilketaren bigarren kanpaina egin da eta bildutako espezieen kultiboarekin hasi da.



Kostako txilardiak. Etengabeko zapaketak landarearen ezabaketa eragiten du.

KUDEAKETA ETA INGURUGIROAREKIKO SENTSIBILIZAIOA

ORDIZIAKO OIANGU LANDA PARKEAREN BALIO NATURALAK KONTSERBATU, LEHENERATU ETA JENDARTERATZEA (II. FASEA)

Finantzabidea: Ordiziako Udala // Parte-hartzaileak: Yoana García eta Maialen Arrieta.


Aurreko urtean, Botanika Sailak Oianguko balio naturalen inguruan egindako azterlanen ondoren, Udala eta Aranzadi ZEaren artean 5 urteetarako lankidetzak hitzarmena sinatu zuten. Hitzarmen honetan Oianguren balio naturalak areagotu eta horien zabalkunderako oinarriak zehazten dira. Horrela, urtetik urtera, hainbat dira inguru honetan aurrera eramaten ari diren ekimenak.

Flora espezie exotiko inbaditzaileen erradikazioa

2015. urtean, 2013an hasitako lanei jarraipena eman zaie. Horretarako Udalerriko espezie exotiko inbaditzaileen kartografia berri da. Ondoren, beharrezkoa kontsideratu den kasuetan eta landareen loraldian oinarrituta, oraindik ere bizirik mantentzen ziren aleak herbizida bidez tratatu dira.

Bertako ibai karramarroaren populazioen berreskurapen-lanak

2014. urtean egindako ur-analisek Altamirako putzuaren ura Ibai-karramarroentzako kalitate onekoa zela ikusi zen. Beraz, 2015eko ekai-



nean ibai-karramarroaren sartzapenaren lehen proba egin zen. Horretarako Nasa bat prestatu zen. Beste erreka batetik 5 Ibai-karramarro hartu eta hauek Nasan sartu ziren, gero, Nasa, Altamirako putzuan sartu zen. Ibai-karramarro hauek astero bisitatu ziren, bisita bakoitzean janaria emanez eta bizirik irauten zutela ziurtatuz. Zoritxarrez eta momentuz ezagutzen ez diren arrazoiengatik aste batzuetan

ra karramarroak hilik agertu ziren. Orain Ibai-karramarroak hiltzearen arrazoiak ikertzen ari da Udala.

Landa-eremuko natur balioak indartzea

Oiangu Landa Parkean espezie autoktonoez osatutako landare-hesia sortu zen herritar eta baserritarrek auzolanean. Denera 528 zuhaitz eta zuhaixka landatu ziren, elorri zuri, elorri beltz, sagarmin eta makatzen artean.

Parkeko hegaztien eraztuntzea eta habi-kutxen jarraipena

Ekimen hau Aranzadi ZEko Ornitologia Sailak aurrera eraman zuen. Bertan habi-kutxen jarraipena egin zen (hutsik edo okupatuak zeuden ikusi) eta hegaztien eraztunketa zientifikoa burutu zen.



Oiangu Landa Parkean espezie autoktonoez osatutako landare-hesia sortu zen herritar eta baserritarrek auzolanean.

“Odonatuak: Uraren Hegoak” erakusketa [1]

Maiatzean Bioaniztasunaren Nazioarteko eguna ospatzen dela kontutan hartuta, hilabete honetan zehar ingurumenaren kontserbaziora bideratutako hainbat ekintza antolatu eta gauzatu ziren. Horien artean, Odonatuei buruzko erakusketa hilabete guztian zehar Barrena Kultur etxean egon zen erakusgai. Honen helburua ur-ekosistemek naturaren kontserbazioan eta biodibertsitatearen emendapenean duten garrantzia zabaltzea izan zen.



1

Altamira putzura irteera [2]

Aipatutako erakusketa osatzearren Maiatzaren 30ean Oianguko Altamira putzura irteera egin zen. Irteera honetan Iñaki Mezquitak buruntziei buruz hitz egin zuen, Herpetologia Saileko Ion Garin berriz, anfibio eta narrastiei buruz aritu zen.



2



3

Gure inguruko landare espezieak ezagutzeko ekimena [3,4]

2015eko ekainaren 20ean "Ginkana: gure inguruko landareak ezagutzuz" antolatu zen. Ekimen honetan parte hartu zuten umeek Oiangun aurkitzen diren habitat motak eta horietara egokitutako landare espezie ezberdinak ezagutzeko aukera izan zuten parkean zehar garatu zen jolas baten bitartez.



3



4

Astronomia saioa [5]

Parkearen erabilera ezberdinak bultzatzearren 2015eko ekainaren 20ko gauean astronomia saioa antolatu zen. Gau honetan Aranzadi Zientzia Elkarteke Astronomia Sailekoen gidaritzapean zeruko izar, planeta, konstelazio eta hainbat kuriositateei buruz ikasteko aukera izan zuen bertaratutako guztiak.



5

Paisaia tradizionala indartzea [6]

Oianguko landa-eremuko izaera indartzearen eta paisaiaren kalitatea hobetze aldera Oiangun bertan meta bat egiteko auzolana antolatu zen. Honekin, paisaiaren kalitatea hobetu nahi izateaz gain, herritarrak lan

hauetara gerturatu eta horiek duten garrantzia zabaldu nahi izan zen. Ekimen hau Almitza Segala Elkarteko gidatua izan zen.



6

2008. urtetik gaur arte Itsasondoko Udala Botanika Sailarekin elkarlanean Udalerriko biodibertsitatearen kontserbazioan lanean ari da. Tes-tuinguru honetan, 2015. urtean au-rreko urteetan abian jarritako lan-ildoak mantendu, sendotu eta lan-ildo berriak martxan jarri dira.


Udal jabetzako lurretan habitat naturalen errestituzioa

Duela urte batzuk Murumendi Interes Naturalistiko Gunea eta herri inguruko beste lur-eremu batzuk ekologikoki berreskuratzeko esfortzu berezia egiten hasi ginen; Udalak, lurra erosketa edo akordio bidez eskuratuz eta beharrezkoa zen kasuetan koniferoak erretiratzuz eta bertako zuhaitz eta zuhaixkak landatuz. Gaur egun **Murumendi Interes Naturalistiko Gune** inguruko 18 partzelen eta herri inguruko beste 4 partzelen kudeaketaren arduraduna da Udala eta guztietan bilatzen duen helburua bertako baso leheneratzea da. Lan hauek Aranzadi Zientzia Elkarteko Botanika Sailaren gidaritzapean aurrera eramaten ari da.

Murumendi inguruan *Quercus pubescens* espeziearen basoa eta pagadia berreskuratzeko lanak aurrera eramane dira aurreko faseetan. Herri-inguruko 3 partzeletan ere bertako espezieen landaketak egin izan dira *Quercus robur* hariztiaren errestituziorako. 2015. urtean horien jarraipen-lanak egin dira. Horrez gain, beste 6 partzela berrietan koniferoak erretiratu eta bertako espezieen landaketak burutu dira *Quercus robur* espeziearen hariztia berreskuratzeko helburuarekin.

Ibai-ertzeko habitaten errestituzioa

2013. urtean arreta berezia ipini zen RQI (Riparian Quality Index) indizearen arabera kategoria eskasa eta oso eskasean sailkatutako erreka-toetan. Horrela ibai-ertzeko habita-



Itsasondoko Udalak Botanika Sailarekin elkarlanean kudeatzen dituen lur-sailak.

ten kalitatea hobetzeko lizarrak, haltzak, astigarrak, intxusak eta sahatsak landatu ziren kategoria baxuko guneetan. 2015. urteko neguan landaketa hauen mantentze-lanak aurrera eramane dira.

Flora exotiko inbaditzaileen erradikazioa

Badira hainbat urte Itsasondoko flora exotiko inbaditzaileen erradikazio lanetan hasi ginela. Urteak urtera egoera favoragarriagoa bada ere, lan hauek jarraipena izatea ezinbestekoa da.

2015. urtean Itsasondoko flora exotikoaren kartografia berri da, landare espezie hauen nukleo berriak bilatuz, jadanik landare hauek desagertu diren guneak identifikatuz edota oraindik ere ale hauek mantentzen diren guneak lokalizatuz. Ondoren, eta landareen loraldian oinarrituta, landare inbaditzaileei herbizida aplikatu zaie, eta azkenik, neguan, bertako espezieen landaketak burutu dira landare inbaditzaileen hazkuntza oztotatzeko helburuarekin.

Bertako fruta-arbolen eta zuhaixken banaketa

Itsasondoko herritarrak euren lurretan biodibertsitatearen aldeko ekintzak burutzeko konpromisoa hartzeko zailtasunak ikusirik, fruta-arbola espezie ezberdinak dohainik eskaini zitzaizkien herritarrei euren landa-lur zein lorategietan landatzeko. Banatu ziren fruta-arbolen barietateak bertakoak izan ziren, izan ere, ekimen honen helburuetako bat bertako barietateak kanpokoen aurrean indartzea izan da. Fruta-arbolez gain, landare-hesietarako zuhaixkak ere banatu ziren.

Polinizazio bitartez basoaren erregenerazio gaitasuna emendatzea

2011. urtean sortu zuen Itsasondoko Udalak erlezain baten eta Udalaren arteko 4 urteetarako hitzarmena. Hitzarmen honen bitartez, erlezainak Udala jabetzako partzela batean jarritako lau erlauntzen zaintza



Tratatutako espezieak ondorengoak izan dira: *Buddleja davidii*, *Cortaderia selloana*, *Reynoutria japonica* eta *Helianthus x laetiflorus*.

aurrera eramaten du, bertatik ateratako etekinak erlezainarentzako izanik. Ekimen honekin erleak Itsasondo eta inguruko landareen polinizazioan laguntzea bilatzen da aldi berean. 2015. urtean, erlezaina aldatzeko prozesua aurrera eramaten ari da Udala Botanika Sailarekin eta Gipuzkoako Erlezain Elkartearekin elkarlanean.

Zuhaitz eguna

Herri-eskolako umeekin zuhaitz eguna ospatu zen. Herri-inguruan landare hesi-berriak sortzeko baliatu zen egun hau. Horrez gain, herri-inguruko zuhaitz gazteetan habikutzak ipini ziren.

Bertako basoen berreskurapena auzolanean

Murumendi inguruan aurrera eramaten ari diren lanak herritarren artean zabaldu eta zentzu honetan jendea sentsibilizatzearen, bertako espezieen landaketa batzuk herritarrekin auzolanean egin ziren. Egun berean saguzarrentzako kaxak jarri ziren herritarrekin batera lur-sail bereko zuhaitzetan.

Udaleko web orriaren ingurumen atala

Azken urteetan lan asko egin dira Itsasondon ingurumenari dagokionez. Guzti horien erakusleioa Udaleko web orria izatea pentsatu zen. Horrela, Udala eta Botanika Sailaren artean Udaleko web orriaren Ingurumen atala berritzen ari dira.



Erle kaxak Itsasondon.



Itsasondoko zuhaitz eguna.



Saguzarren kaxak ipini baino lehen talde argazkia zuhaitz gazteak landatutako lur-sailean.

IRTEERA ETA TAILERRAK

AIZPORAUNDI, JAIZKIBEL. EREMU BITXI BAT EZAGUTZERA!

Ekainaren 6an 12 pertsonaz osatutako taldean Aizporaundiko eremura gerturatu ginen. Bidean haur eta helduei jolas bat proposatu zitzaion bidean landare espezieak ezagutzen joan zitezkeen. Landare espezieak identifikatzeko irudi batzuk eman zitzaizkien eta hauen artean bertako landareak zirenak eta exotikoak zirenak bereizteko kolore ezberdinez azalduta agertu zitzaizkien. Horrela, gako honetan agertzen ziren espezieak biltzen eta modu honetan ezagutzen joan ziren irteeran zehar.

Aizporaundira iristean bertan *Thelypteris palustris* espeziea eta *Cladium mariscus* formazioa bere optimoan ikusi ahal izan ziren. Bidean ere *Baccharis halimifolia* aleak ikusi eta erauzi ahal izan zituzten.

EPELEKO NATURA: JOLASTU, EZAGUTU, GOZATU

Urriak 10an egindako irteera honek Hernaniko Epele auzoko aterpean izan zuen hasiera eta Epeleko errekan gora Zepadiko putzutik igaroaz, Etxetxuitan eman zitzaion amaiera. 50 bat pertsona bertaratu ziren umeak dituzten familiek egin ahal izateko oso aproposa baitzen irteera: oso motza, ez zen apenas maldarik eta gainera umeentzako erakargarriak diren elementu natural eta kulturalak zeuden.

Hori dela eta, ibilbide gidatu modura helduei bertako ondare natural eta kulturalak azaltzeaz gain gaztetxoenei zuzenduta hainbat landare eta zuhaitz ezagutzeko joko moduko bat eskaini zitzaion.

ARRIESTUETAKO ITURRIA BERRESKURATZEKO ANTOLATUTAKO BOLUNTARIOTZA EGUNARI LOTUTAKO UMEENTZAKO TAILERRA

Jaizkibelgo Arriestuetako iturria berreskuratzeko antolatutako boluntariotza egunean, urriak 18, bertaratutako bi umeekin bi tailer egin ziren: igel baten bizi-zikloa eta putzu ekosistema baten marrazkia koloreztatzea (ikus beheko irudiak).



Anfibioei buruzko tailerlean egindako materialaren argazkia.



Aranzadiko Botanikako kidea umeekin anfibioei eta putzuei buruzko tailerra egiten.

GURE LURRALDEKO LANDAREAK EZAGUTZEKO ALT XORRAREN BILA ARRIARAN AUZOAN (BEASAIN)

Arriaran auzoko festak kolorez janzteko, Aranzadiren eta Arriarango Intxaurpe Elkartearen arteko elkarlanaz, gure lurraldeko landareak ezagutzeko altxorren bila antolatu zuten ekainaren 27an. Jarduera honetan auzoko dozena bat ume hartu zuten parte jai giro paregabea.

Tailer honen helburua modu parte hartzaile batean jolastuz, Euskal Herriko eta Arriaranen bertan topa daitezkeen zuhaitz, zuhaixka eta landareak identifikatzen ikastea izan zen. Hezitzaile batek pistak batzen zituen parte hartzen zuten umeek irakur zituzten. Irakurri ostean, denen artean landarea zein zen asmatu eta mendian topatu behar zuten, hosto, lore edota fruituak ikusi, ikasi eta laginak hartzeko. Pista guztiak amaitu ostean, mural handi bat osatu zuten mendian jasotako hosto, lore eta fruituekin, landare bakoitzaren habitata kontuan izanik.

CAMINOS DESDE ALTZA: PLANTAS INVASORAS EN ALTZA Y SU ENTORNO. (III. SEMANA DE LA NATURALEZA DE ALTZA)

Organizadores: Altzako Historia Mintegia, Plus 55, Donostia Kultura

Lugar: Altza (III. Semana de la Naturaleza de Altza. 20-25 abril)

HITZALDIAK

LANDARE EXOTIKO INBADITZAILEAK HERNANIN: GAUR EGUNGO EGOERA ETA KUDEAKETA

Azaroaren 30ean Hernaniko landare exotiko inbaditzaileei buruzko hitzaldia aurkeztu zen Biteri aretoan. Saio honetan Hernanin aurkitzen diren landare hauek zeintzuk diren eta zein egoeratan aurkitzen diren azaldu zen. Honekin batera gure ondare naturalaren galeran nola eragiten duten eta horien aurka nola lan egiten dugun azaldu zen. Bide batez, etxeko lorategietako aleak erazteko argibideak eman ziren.

PLANTAS INVASORAS: ESPECIES TRANSFORMADORAS DE NUESTRO PAISAJE.

Ponente: Leire Oreja
Organizadores: Altzako Historia Mintegia, Plus 55, Donostia Kultura
Lugar: Altza (III. Semana de la Naturaleza de Altza. 20-25 abril)

TRABAJOS PARA EL CULTIVO Y CONSERVACIÓN *EX SITU* DE *RHYNCHOSPORA FUSCA*

Ponente: Joseba Garmendia Altuna

Organizadores: Diputación Foral de Álava y Fundación HAZI

Lugar: Museo Artium (Vitoria-Gasteiz) (Jornada técnica final del LIFE+ProlZKI, 24-25 de septiembre de 2015)

BILTZAR ETA TOPAKETAK

LANDAREEN KONTSERBAZIO BIOLOGIAREN VII. BILTZARRA



2015. urteko irailaren 30etik urriaren 2ra SEBICoP-eko (Sociedad Española de la Conservación de Plantas) Landareen Kontserbazio Biologiaren VII. Biltzarra ospatu zen Gasteizen Eusko Jaurlaritzako Egoitzan. Biltzarraren antolakuntza, koordinazioa eta idakaritzaren ardura Botanika Sailak aurrera eraman zuen beste entitate batzuekin elkarlanean.

NATUR ZIENTZIEN II. TOPAKETA

2015eko azaroaren 28 eta 29an UEUK Natur Zientzien II. Topaketa ospatu zen Donostiako Eureka! Zientzia Museoan. Botanika Sailak ondorengo ekarpenak egin zion topaketa honi poster formatoan:

«Aizporaundiko *Cladium mariscus* hezegunearen errestaurazio-lanak (Jaizkibel) 2012-2015»

Anaïs Mitxelena, Mari Azpiroz, Maialen Arrieta, Lorena Uriarte, Yoana García, Jon Zulaika eta Leire Oreja

«Lur erabileraren eta landare-paisaiaren dinamikaren monitorizaioa EAEn»

Yoana García, Joseba Garmendia, Ibon Tamayo, Anaïs Mitxelena, Maialen Arrieta, Leire Oreja, Amador Prieto, Alberto Castro eta Ibai Aizpuru.

«LIFE+ ARCOS: kantauriko itsasertzeko dunak zaintzen (2014-2018)»

Tomás Díaz González, Álvaro Bueno, Jose Ignacio Alonso Felpete, Leire Oreja, Joseba Garmendia, Jon Zulaika, Jesús Varas, Jose Luis Tejerina eta Carlos Ley Vega de Seoane.



PUBLICACIONES || ARGITALPENAK

ARTIKULOAK

GARCÍA, Y. 2015. Itsasondoko herri inguruko baratzen III. lehiaketa. 2.0 aldizkaria, uztaila-iraila.

GARCÍA, Y. 2015. Gure basoen historia laburbilduz. 2.0 aldizkaria, apirila-ekaina.

GARCÍA, Y. 2015. Oiangu arnasberrituz. Ordiziako Santa Ana urtekaria 2015, uztaila.

Joseba Garmendiari elkarrizketa. "Landaredia ez da baliabide hutsa, benetako ondarea baizik" Berria 2015-10-25.



LANDAREEN KONTSERBAZIO BIOLOGIAREN VII. BILTZARRA

Gasteiz, Irailak 30 - Urriak 2

Botanika Saila



SEBICoP-ek (Sociedad Española de la Conservación de Plantas) bi urtez behin ospatzen du Landareen Kontserbazio Biologiari buruzko biltzarra. Aurtengoan, Biltzar honen VII. edizioa ospatu da Gasteizen, Eusko Jaurlaritzako Egoitzan, irailak 30etik urriaren 2ra. Aranzadi Zientzia Elkarteko Botanika Sailak izan du Biltzar honen idazkaritza eta antolakuntza nagusiaren ardura beste entitate batzuekin elkarlanean; Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Politikako Saila, IHOBE, Arabako Foru Aldundia, Gipuzkoako Foru Aldundia, Bizkaiko Foru Aldundia, Euskal Herriko Unibertsitatea, Gasteizko Udala, Gasteizko Udaleko Ingurugiro Gaietarako Ikastegia, Sestaoko Natur Zientzien Elkarte eta Arabako Natur Institutua.

Biltzarraren helburua landareen biodibertsitatearen kontserbazioarekin lotutako aurrerapenak ezagutaraztea izan zen. Horren baitan, era askotako gaiak landu ziren: landareen ikerketa molekularrak, ugalketako biologia, in situ-ex situ kontserbazioko ekintzak, landare-populazioen demografiari eta dinamikari buruzko ikerketak eta ingurune naturalaren kudeaketa-estrategiak.

Hiru eguneko iraupena izan zuen biltzar honetan, ahozko komunikazioak eta poster-formatuan egindakoak aurkeztu ziren. Denera estatuko eta kanpoko 130 espezialista bildu ginen, unibertsitateetatik, kontserbazioaren inguruan lan egiten duten administrazioetatik, ikerkuntza zentroetatik eta natura babesteko taldeetatik etorriak.



BILTZAR HONETAN BOTANIKA SAILAK EGINDAKO EKARPENAK:

AHOZKO KOMUNIKAZIOAK

«Avances en la conservación ex situ de la flora amenazada y de interés del país vasco y territorios limítrofes en el banco de germoplasma vegetal de Gipuzkoa, tras 10 campañas de recolección»

Joseba Garmendia, Leire Oreja, Maialen Arrieta, Jon Zulaika & Ibai Aizpuru.

POSTERRAK

«Primeros pasos para el desarrollo de una estrategia para la conservación de la flora vascular amenazada y de interés en Gipuzkoa»

Joseba Garmendia, Leire Oreja, Jon Zulaika & Ibai Aizpuru.

«LIFE+ ARCOS: kantaariko itsasertzeko dunak zaintzen (2014-2018).

LIFE+ ARCOS: conserving cantabrian coastal dunes (2014-2018)»

Tomás Díaz González, Álvaro Bueno, Jose Ignacio Alonso Felpete, Leire Oreja, Joseba Garmendia, Jon Zulaika, Jesús Varas, Jose Luis Tejerina eta Carlos Ley Vega de Seoane.

«Reforzamiento de la población de *Rhynchospora fusca* (L.) aiton fil. del Parque Natural de Izki (Álava-Araba)»

Leire Oreja, Maialen Arrieta, Joseba Garmendia, Patxi Heras, Marta Infante & Jonathan Rubines.

Lehenengo bi egunetako aurkezpen eta eztabaidak landareen kontserbazioaren inguruan egindako azken urteetako lorpenak ezagutarazteko erabili ziren. Denera 110 komunikazio aurkeztu ziren poster eta ahozko komunikazioen artean. Saio osagarriak ere eskaini ziren arlo honetan lan egiten duten administrazio eta ikerketa taldeen eskutik.

Hirugarren egunean Olarizuko Lorategi Botanikora eta Izki Parke Naturalera irteera egin genuen bertan egiten ari diren lanak bertatik bertara ezagutzeko aukera izanik.

Botanika Sailetik eskerrak eman nahi dizkiegu bertan parte hartu zuten guztiei eta laguntza eman duten entitate guztiei denon artean Biltzar arrakastatsua posible egiteagatik.



ENTOMOLOGIA



Zuzendaria / Director: ALBERTO CASTRO [entomologia@aranzadi.eus]

El compromiso amateur de los socios contribuye con los avances del 2015: mantenimiento y extracción de datos de las colecciones, divulgación a público general y especializado y aporte de nuevos registros de especies. Díficilmente ha podido ser de otra manera, ya que prosigue la baja actividad investigadora de nivel profesional, sea por la situación personal de sus integrantes, sea por las actuales tendencias restrictivas en las subvenciones públicas (reducción de cuantías económicas y coberturas no íntegras a los proyectos).

PROYECTOS DE INVESTIGACIÓN

ENTOMOFAUNA ASOCIADA A LA DESCOMPOSICIÓN DEL CERDO DOMÉSTICO (*SUS SCROFA*) EN AMBIENTE ATLÁNTICO

Participantes: Bea Díaz // Financiación: Gobierno Vasco. Universidad del País Vasco
Colaboración: Aranzadi colabora aportando un lugar complementario de trabajo

Descripción: Durante el próximo mes de Enero se va a proceder a la lectura de la tesis doctoral "Entomofauna associated to domestic pig (*Sus scrofa*) decomposition in an atlantic environment (Aiako Harria, basque country, spain)". Esta consiste en un estudio de la fauna entomológica asociada a los procesos de reducción cadavérica en el Parque Natural de Aiako Harria (Errenteria, Guipúzcoa) durante los meses de verano de 2009 y 2010, utilizando como modelo animal cadáveres de cerdo doméstico (*Sus scrofa*) de 8-12 kg. Se han identificado 18 órdenes y 255 especies, cuya presencia en los cuerpos en descomposición sigue una secuencia predecible, a pesar de haberse encontrado diferencias con otros estudios previos realizados en otras áreas de la península Ibérica. De este amplio inventario, 17 taxones han sido hallados de utilidad

para construir un modelo de sucesión para esta área, y cuatro especies han sido identificadas como in-

dicadores forenses según el análisis de sus patrones de residencia (*Hydroteia similis*, *Coproica hirticula*,



Masa de larvas de mosca procesando cadáver de cerdo. MANUEL DÍAZ

Anoplotrupes stercorosus y *Necrodes littoralis*). Se incluyen también datos de desarrollo de los estadios larvarios de las principales especies de dípteros colonizadores. De forma

adicional, se ha realizado un análisis sobre cuán apropiado resulta la extrapolación de datos de la Estación Meteorológica más cercana a la zona de muestreo para su uso en la esti-

mación del intervalo post-mortem, encontrando que, si bien los resultados apoyan esta práctica habitual, hay diferencias significativas incluso en las distancias más cortas.

COLEOPTERA BILDUMAREN AZTERKETA

Participantes: Fernando Hiribarnegarai

Financiación: Aranzadi Zientzi Elkartea. Entomologia Saila

Joan den urtean batez ere Staphylinidae familiarekin lan egin da. Horretarako determinatu eta zerrendatu dira Aranzadi bilduman zeuden espezie batzuk. Albizu, Garin eta Cueto Aranzadiko kide zaharrek hartutako aleak direla ere esan behar dugu.

Genero batzuen artean aipatu ditzakegu ondoko hauek:

- *Quedius*
- *Creophilus*
- *Emus*
- *Staphylinus*
- *Platydracus*
- *Ocypus*
- *Philonthus*
- *Pederidius*
- *Pederus*

Bestaldetik, arakatu dira, estafilinidoen bila, Arabako Gibixo eta Arkamo mendikateak.

Aspalditik ongi ikertutako morfologia arloan mendikate hauek, kobazulo karstikoen biologia ikuspuntutik behintzat, lan nahiko egin behar da oraingoz ongi ezagutuak izateko. Mendikate horien hiru kobazulotan egindako indusketa batzuen ondoren topatutako Coleop-



Quedius mesomelinus. © FERNANDO HIRIBARNEGARAI

tera familiako espezie batzuk hemen aipatzen dira.

- *Quaestus (Quaesticulus) cisnerosii* (Pérez-arcas, 1872)
- *Quedius mesomelinus (Microsaurus)* (Marsham, 1802)
- *Philonthus cruentatus (s.str.)* (Gmelin, 1790)
- *Philonthus varians (s.str.)* (Paykull, 1789)
- *Laemostenus (Actenipus) oblongus* (Schafuss, 1862)
- *Pterostichus (s.str.) cristatus* (Dufour, 1820)

Interesgarria izan da ere nola *Quedius mesomelinus*-en arrapaketa, eta aspaldian C. Galanek aurkitutako *Quedius* multzo bat Alliko kobazuloan, espezie bera direla. *Quaestus cisnerosii* (Pérez Arcas 1872), *Cholevidae* familiakoa, bestaldetik ongi mantentzen da oraingoz kobazulo horietako iluntasun iraunkorretan.

BASE DE DATOS Y MANTENIMIENTO DE LA COLECCIÓN DE ARAÑAS DE ARANZADI (ARANEUS)

Participantes: Julen García Varela y Alberto Castro.

Financiación: Departamento de Entomología. Sociedad de Ciencias Aranzadi

Durante el 2015 se ha procedido al mantenimiento de los niveles de alcohol y a la creación de una base de datos basada en el lenguaje universal Darwin Core para su cruce futuro

con bancos de datos internacionales de biodiversidad. De momento la colección supera los 3500 viales y 6000 ejemplares. Se ha decidido nombrar a la colección como

AranEus. Araneus es un género de arañas, Aran- hace referencia a Aranzadi y -Eus a Euskal Herria, territorio del cual proceden más del 95% de los registros de la colección.



Arriba, elaborando la base de datos de la colección AranEus; a la izquierda, *Uroctea durandi*, araña mediterránea.

ALBERTO CASTRO

USO HISTÓRICO DEL BOSQUE AUTÓCTONO Y POBLACIONES, DIVERSIDAD Y DISPONIBILIDAD DE HÁBITAT DE COLEÓPTEROS SAPROXÍLICOS AMENAZADOS EN EL LIC DE ARTIKUTZA

Participantes: Alberto Castro


Financiación: Servicio de Salud Ambiental y Sostenibilidad. Ayuntamiento de Donostia-San Sebastián.

Colaboradores: Álvaro Aragón (Departamento de Historia Medieval, Moderna y de América. Facultad de Letras. EHU/UPV)

El ayuntamiento de Donostia-San Sebastián ha concedido en octubre del 2015 la «Beca de investigación para aumentar el conocimiento y la valoración de la biodiversidad del Lugar de Importancia Comunitaria de Artikutza» al proyecto presentado por el socio Alberto Castro. Los

objetivos del proyecto incluyen la determinación de la presencia de especies amenazadas o legalmente protegidas y elaborar un diagnóstico del estado de sus poblaciones basado en la disponibilidad de hábitat generada por los distintos usos del arbolado autóctono llevados a cabo

históricamente en la finca de Artikutza. La conjugación de información histórica, estructura forestal y censos poblacionales se establecen como marco metodológico para la consecución de estos fines. Esta investigación se desarrollará hasta otoño de 2016.



Estudio de estructura forestal (A) para calcular densidades de árboles muertos (B) y viejos (C) como hábitat potencial para Gran Capricornio (D), Ciervo Volante (E), Rosalia (F) y Ermitaño (G). ALBERTO CASTRO

ARÁCNIDOS CAVERNÍCOLAS

Participantes: Carlos E. Prieto (departamento de Zoología de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea) y Jon Fernández Pérez

Financiación: Autofinanciado // Colaboradores: Alberto Castro

Los socios Alberto de Castro y Jon Fernández Pérez de Aranzadi, junto a un nutrido grupo de colaboradores, colaboran en prospecciones de cuevas llevadas a cabo por otras instituciones. Así, se han efectuado seis muestreos en las cuevas de Mairuelegorreta y Sugusti (Parque Natural de Gorbea, Álava) a finales de verano y otoño. El objetivo era encontrar el macho de la araña troglobia *Cen-*

tromerus viduus Fage, 1931, que se trata de un endemismo alavés. Dicho autor describió el macho de esta especie en Mairuelegorreta y posteriormente solo hemos encontrado supuestas hembras, juveniles y machos subadultos en Sugusti, cueva cercana, pero no directamente conectada con la localidad típica.

Jon Fernández Pérez y Carlos E. Prieto, del departamento de Zoo-

logía de la Universidad del País Vasco/Euskal Herriko Unibertsitatea, han muestreado en primavera y otoño invertebrados cavernícolas en cuevas de Bizkaia, Cantabria y Gipuzkoa. En los muestreos de Gipuzkoa ha participado Alberto de Castro y en los de Cantabria han colaborado el estudiante Iñigo Moreno de la UPV/EHU y Saioa Hernández Castro.

DIVULGACIÓN FORMAKUNTZA ETA DIBULGAZIOA FORMACIÓN Y DIVULGACIÓN FORMAKUNTZA ETA DIBULGAZIOA FORMACIÓN Y DIVULGACIÓN FORMAKUNTZA ETA DIBULGAZIOA

ASISTENCIA A CURSOS, JORNADAS, CONGRESOS**Seminario sobre reconocimiento de Odonatos**

Organizador: Txingudiko Padurak

Fecha del evento: 7 de febrero y 25 de abril

Asistentes: Iñaki Mezquita como formador para Técnicos del Parque de Plaiaundi

Simposio Ibérico de Odonatología

Organizador: Florent Prunier & El Bosque Animado

Fecha del evento: 1-3 de mayo (Córdoba)

Asistentes: Iñaki Mezquita como participante

Jornada sobre observación e identificación de los Odonatos de Plaiaundi

Organizador: Txingudiko Padurak

Fecha del evento: 13 de junio

Asistentes: Iñaki Mezquita como formador para público en general y técnicos del Parque de Plaiaundi

Curso de Entomología: ¡Artrópodos! Esos bichos que dominan la tierra

Organizador: Beatriz Díaz y Alberto Castro. Sociedad de Ciencias Aranzadi.

Fecha del evento: 26 de junio a 5 de julio.

Asistentes: Beatriz Díaz y Alberto Castro como formadores de público en general.

V Jornadas de Biodiversidad, Cultura y Tradiciones de Las Merindades

Organizador: Casa del Parque de Ojo Guareña (Burgos) y Junta de Castilla y León

Fecha del evento: 24 y 25 de Octubre de 2015

Asistentes: Jon Fernández Pérez como ponente sobre conservación de saproxílicos y Alberto Castro como oyente.



Asistentes al curso de entomología en la excursión de Pagoeta. 📷 ARANTXA TXINTXURRETA



PUBLICACIONES || ARGITALPENAK

PUBLICACIONES CIENTÍFICAS

CASTRO, A. & ESPINOSA, C.I. 2015. Seasonal diversity of butterflies and its relationships with woody-plant resources availability in an ecuadorian tropical dry forest. *Tropical Conservation Science* 8 (2): 333-351.

DÍAZ-MARTÍN, B. & M.I. SALOÑA-BORDAS. 2015. Arthropods of Forensic Interest Associated to Pig Carcasses in Aiako Harria Natural Park (Basque Country, Northern Spain). *Ciencia Forense* 12: 211-232.

FERNÁNDEZ-PÉREZ, J.; CASTRO, A. & PRIETO, C.E. 2014. Arañas cavernícolas (Araneae) de la región Vasco-cantábrica: nuevos registros y actualización del conocimiento. *Revista Ibérica de Aracnología* 25: 77-91.

MEZQUITA ARANBURU, I. & TORRALBA BURRIAL, A. En prensa. Primera cita de *Onychogomphus forcipatus forcipatus* (Linnaeus, 1758) (*Odonata: Gomphidae*) para la Península Ibérica. *Boletín de la SEA* 57.

PRIETO, C.E. & FERNÁNDEZ PÉREZ, J. 2015. Inventario faunístico de Carlista-Pozalagua. En: Unión de Espeleólogos Vascos-Euskal Espeleologoen Elkargoa. El sistema Carlista-Pozalagua, monografía de la revista *Karaitza* Vol. 2 (31/12/2015): en prensa

PRENSA

RADIO

17/04/2015: entrevista a Alberto Castro sobre escarabajos en "Las Tardes del Ciudadano García". RNE.

28/05/2015: entrevista a Jon Fernández Pérez sobre el curso de Entomología en "Ekosfera". Euskadi Irratia.

14/06/2015: entrevista a Alberto Castro sobre el curso de Entomología en "La Mecánica del Caracol. Planeta Aranzadi". Radio Euskadi.



Onychogomphus forcipatus forcipatus. 📷 IÑAKI MEZQUITA

CONSULTAS

El Departamento de Entomología ha atendido a decenas de consultas de particulares sobre insectos, generalmente en entornos urbanos y aledaños. Resultado de las mismas tenemos la impresión de un hecho preocupante. Se trata de la confusión de especies autóctonas como el avispón (*Vespa crabro*) por especies exóticas invasoras como la avispa asiática (*Vespa velutina*).

Da la sensación de que se está creando una “psicosis social” por la cual, muchas especies autóctonas y llamativas de gran tamaño son tomadas por especies exóticas. El desconocimiento generalizado de los invertebrados por parte de la población en general y el enrarecimiento de las especies autóctonas en las últimas décadas provocan que incluso varios habitantes de la zona rural consideren la posible asignación de exóticas a especies nativas otrora bien comunes.

VISITAS CIENTÍFICAS

La colección de himenópteros del Departamento de Entomología, principalmente compuesta por especímenes procedentes de la finca de Artikutza recolectados por Leticia Martínez de Murguía, ha sido consultadas en diciembre por el entomólogo Oscar Aguado, especialmente interesado en las especies polinizadoras.



HERPETOLOGIA




Zuzendaria / Director: CARLOS CABIDO [herpetologia@aranzadi.eus]

INTRODUCCIÓN

Una vez más, por cuarto año consecutivo, no puedo evitar citar a Carroll para dar forma a una nueva recapitulación y autocrítica.

«-¿Quién eres tú? -Yo... yo casi no lo sé en este momento... por lo menos sé quién era yo, pero me parece que debo haber cambiado». Siempre estamos cambiando pero puede que sólo nos percatemos cuando, por la razón que sea, esos cambios se aceleran y, entonces, al volver la vista atrás, observamos una clara diferencia entre el antes y el después. El cambio de sede que se avecina puede constituir ese acelerante. Pero, aunque el cambio —la evolución— es inevitable, como venimos observando los últimos años, la inercia sobre la que cabalga Aranzadi y la montura de nuestras propias rutinas lo hacen tan paulatino que es fácil olvidarlo. Tenemos pues que aprovechar esta oportunidad para hacernos preguntas y dudar. Todos tenemos más o menos claro qué éramos, pero debemos tener igual de claro qué queremos ser para definir qué somos realmente.

«Pero yo estaba pensando una manera de multiplicar por diez, y siempre, en la respuesta, obtener de nuevo el problema». En eso consiste la ciencia, en obtener nuevas preguntas como respuesta a las que nos habíamos planteado, más que en



Imaginación y técnica bien combinadas abren muchas posibilidades.

C. CABIDO

responderlas. Consiste en multiplicar por diez (cuanto más, mejor) la incertidumbre y ampliar cada vez más el horizonte de nuestra ignorancia. Al fin y al cabo es la ciencia, aunque sea en plural, la que nos da nombre y sentido. ¿Estamos levantando la vista y caminando hacia ese horizonte o tendemos a dar vueltas sobre nosotros mismos, mirando hacia el suelo, hacia lo local? ¿No estaremos tratando de encontrar respuestas a preguntas demasiado concretas?

La actividad investigadora del Departamento sigue enmarcada dentro de la ecología evolutiva y del comportamiento, como en años precedentes. Este último año ha estado casi completamente centrada en los efectos que la antropización del hábitat tiene sobre los herpetos y sus

correspondientes mecanismos de adaptación a éstos rápidos e intensos cambios ambientales. Todo ello ha formado parte de la tesis doctoral de Mainer Iglesias-Carrasco, cuya lectura está prevista a lo largo de 2016, y del proyecto de fin de carrera de Jon López Aizpuru. Sabemos ahora mucho más sobre cómo las explotaciones forestales no son, ni mucho menos, bosques, y que afectan a distintos aspectos de la historia vital, comportamiento o fisiología de los anfibios, con consecuencias evolutivas y de gestión, desconocidas. Del mismo modo, sabemos que la urbanización del hábitat afecta a aspectos como la respuesta inmune o el comportamiento antidepredador, aunque no por qué no lo hace de forma lineal (a más urbanización, mayor efecto) o

si, al hacerlo, está afectando indirectamente a otros aspectos o "promocionando" unas estrategias vitales frente a otras. Además, June Garrido, Francisco Javier Urquijo e Iñigo Urbina han realizado prácticas con nosotros y hemos mantenido los cada

vez más largos y meritorios seguimientos de poblaciones amenazadas, dos proyectos de custodia del territorio y diversas actuaciones puntuales de gestión del hábitat. Por último, otro miembro del departamento ha adquirido el título de doctor con la

tesis "Distribución, hábitat y datos poblacionales del galápago europeo (*Emys orbicularis*) en el Valle del Ebro: herramientas para la gestión de la especie y su hábitat", realizada en la Universidad de Zaragoza.

PROYECTOS DE INVESTIGACIÓN

¿SON LOS EUCALIPTALES TRAMPAS ECOLÓGICAS PARA LOS ANFIBIOS? EXAMEN DE DIVERSOS ASPECTOS ECOLÓGICOS Y COMPORTAMENTALES

Maider Iglesias-Carrasco, Iraide Artetxe, Pablo Burraco, Ion Garin-Barrio, Iván Gómez-Mestre, Megan Head, Michael Jennions, Aitor Larrañaga y Carlos Cabido

Colaboran: Estación Biológica de Doñana (CSIC), Universidad del País Vasco (EHU-UPV) y Australian National University
Financiación: Ministerio de Economía (beca FPU a M.I.)

